

Eskola segregazioa itundua dago

Nafarroako
hezkuntza
sistemaren
lotsa





Eskola segregazioa itundua dago. Nafarroako hezkuntza sistemaren lotsa.

2021 Maiatza



- Araba** Eulogio Serdán 5 • 01012 **Gasteiz**
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02
araba@steilas.eus
- UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 **Gasteiz**
☎ 945 01 33 97 (3397)
steilas-araba@ehu.es
- Bizkaia** Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60
bizkaia@steilas.eus
- UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegi eraikina, 2 - 1 • 48940 **Leioa (Bizkaia)**
☎ 946 01 24 34 – 24 35
steilas-bizkaia@ehu.es
- Gipuzkoa** Basotxiki 30-34 atz. • 20015 **Donostia**
☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.eus
- UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 • 20018 **Donostia**
☎ 943 01 84 36 (8281) ☎ 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es
- Nafarroa** Joaquín Beunza, 4-6 behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90
nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus

Aurkibidea

Marko teorikoa	5
1. Ikastetxeetako segregazioaren lehendabiziko zergatia: diru publikoz ordainduriko bi hezkuntza sare izatea	6
1.1. Sare publikoaren eta itunpeko sarearen datuak	6
1.1.1. Bi hezkuntza sareen presentzia Europan	6
1.1.2. Bi hezkuntza sareen presentzia espainiar estatuan, autonomia erkidegoka	7
1.1.3. Bi sareen arteko segregazioaren datuak Nafarroan	10
a. Atzerritar jatorria duten ikasleak sareka	10
b. Eskola segregazioa maila sozioekonomikoaren arabera (ISEK)	12
c. Eskola segregazioa berriazko hezkuntza laguntza jasotzeko eskubidearen arabera Nafarroan	14
d. Matrikulazio berantiarreko ikasleak	15
e. Presentziala ez den irakaskuntzan ikasleen arteko arrakalaren handitzea	16
f. Aniztasunarekiko arretari baliabide gehiago eskaintzeko borroka	17
1.2. Bi sare bereiziren ikasle segregazioaren zergatiak	18
1.2.1. Itunpeko irakaskuntzaren historia Espainiar estatuan eta Hego Euskal Herrian, edo nondik gatozen eta nora goazen	18
1.2.2. Sareen arteko segregazioaren zergatiak	21
a. Diru publikoa itunpeko irakaskuntza pribatura desbideratzeko prozesua	21
b. Ikastetxea hautatzeko askatasunaren mitoa eta pentsamolde neoliberalak Hezkuntzan	26
c. Oinarrizko kuota, ikasketa edo jarduera osagarriari lotutako derrigorrezko zerbitzuak, arrazoi ekonomikoengatik diskriminazioa dakartenak	27
d. Itunpeko ikastetxe pribatuetan erlijio katolikoaren irakasgaiaren derrigortasuna	33
e. Eskola pribatuaren bikaintasunaren mitoa	33
f. Pobreziatik eta gizarte-bazterkeriatik aldentzeko interesa	34

1.3. Beste segregazio prozesu batzuk Hezkuntzan	35
1.3.1. Ikastetxe publikoen arteko getizazioa	35
1.3.2. Itunpeko ikastetxe pribatuen arteko getizazioa	36
a. Titulartasun pribatuko ikastetxe motak	36
b. Itunpeko ikastola pribatuak	36
c. Kongregazio erlijiosoenak edo inspirazio kristau edo katolikoa duten ikastetxeak	37
1.3.3. Hizkuntza segregazioa: Hizkuntza Ereduak, PAI eta Atal Elebidunak	37
1.3.4. Sexu/generoaren araberako segregazioa	39
1.3.5. Ingurune behartsuenetako biztanleriaren banaketa irregularra Nafarroan	40
2. Disfuntzio honen ondorioak ikasleentzat, ikastetxeentzat eta gizartearentzat bere osotasunean	42
2.1. Ratioen desoreka	42
2.2. Errendimendu-adierazle orokorren jaitziera	43
2.3. Gizarte desorekatuagoa eta kohesio gutxiagokoa (desberdintasun sozialak betiketzea)	45
3. Beharrezko neurriak	46
3.1. Gobernuarenak: beharrezko legeria eta berau betetzen dela zaintzeko betebeharra	46
3.2. Ikastetxeetan	49
3.3. Erantzunkidetasun soziala	49
Erabilitako bibliografia eta materialei estekak	51

Marko teorikoa

Bada denbora **STEILAS**ek diru publikoz finantzaturiko bi sare izateak eragiten duen disfuntzioa salatzen duela, hala nola etengabeko ikasleen arteko segregazio mailaren hazkundera ere, bai egoera sozioekonomiko okerrean dagoenarena eta bai hezkuntza behar bereziak dituenarena.

Horren ondorio zuzena da ikastetxeen getizazioa, eta horietan ikasleak ez dira modu anitz eta aberats batean erlazionatzen, beraien ezaugarri sozial, kultural eta ekonomiko berak dauzkaten kideekin baizik. Eskola-segregazioak haur guztiei eragiten die, ez posizio sozioekonomiko prekarioagoetatik datozei soilik, gaitasun sozioemozionalak gutxiago garatzen baitituzte, bedintasun soziala murrizteaz gain. Honek hezkuntza sisteman eragiten du, bere eraginkortasuna apaltzen duelako eta ikasleen goi mailako ikasketak egiteko aukerak eta espektatibak gutxitzen dituelako, eta baita ekonomian eta gizarte osoan ere, gizarte egitura desorekatua eta kohesiorik gabekoa mantentzen duelako.

LOMLOErekin eta Nafarroako Foru Dekretua argitaratzearekin, zeinak ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan aplikatu beharreko ikasleen onarpena erregulatzen duen, badirudi tamaina itzela duen arazo hau kitatzeko interes handia dagoela, Europako leku gehientsuenekin konparatuz gero. Hala ere, bi testuen irakurketa sakonagoak esperantzarako tarte gutxi uzten du, diskurtsiboki aurrerapen handiak ekarriagatik, zehaztasun gehiegirik ez dakarrelako, arazoa konponduko duten neurriak indarrean jar daitezten. Horiei heltzea dagokien administrazioek zein modutan zehazten duten ikusi arte itxaron beharko dugu, ea zein araudi-garapen dakarten, baloratu ahal izateko ea esfortzu erreal bat den, ondorio neurgarriak izango dituen.

STEILASek positibotzat jotzen du Departamentua behingoz lanean hastea sareen artean ematen den segregazioa arintzeko, eta lan egingo dugu gure eskolak ez daitezten izan gizartearen isla distortsionatu bat, baizik eta ikasleen Hezkuntza eskubidea gauzatzeko espazioa aukera berdintasunean, hau da, ez dadin izan familien parte batek heziketa segregatzaile, elitista eta ez demokratikoegi bat aukeratu ahal izateko eremua.

Dosier honetan errealitate honek Nafarroan daukan tamaina ikustarazi nahi dugu, zeinetan sakondu ahal izango dela uste dugun Hezkuntza Departamentuak iaz eskaturiko txostena argitaratzearekin batera, joan en ikasturtean eskatu zena baina egun, ia urtebete pasa denean, oraindik ere publiko egin ez dena.

1. Ikastetxeetako segregazioaren lehendabiziko zergatia: diru publikoz ordainduriko bi hezkuntza sare izatea


Aski da hainbat eskalatan bi sareek daukaten presentziaren datuei begiratu bat ematearekin gizarte desorekaren tamainaz jabetu ahal izateko.

1.1. Sare publikoaren eta itunpeko sarearen datuak


1.1.1. Bi hezkuntza sareren presentzia Europan

Estatu espainiarra itunpeko eskola pribatu gehien dauzkan Europako laugarren herrialdea da, Belgika, Malta eta Erresuma Batuaren ostean. Itunpeko ikastetxeetan ikasten duten ikasleen batezbestekoa Europan % 19koa bada, estatu espainiarrean zifra hau % 33raino hazten da.

Zifrak alderantzikatuta, eskolaratutako ikasleen % 67 ikastetxe publiko batera joaten da, eta Europan batezbestekoa % 81ekoa da. Itunpeko plaza gehien dituen estatuen artean gaude, eta Eliza katolikoa da diru publikoz finantzaturiko zentru pribatu horien % 60a kudeatzen duena.



Iturria: Eurostat.




Iturria: guk sortua Eurostateg emandako datuekin.


1.1.2. Bi hezkuntza sareren presentzia espainiar estatuan, autonomia erkidegoka

Lotsagarriro nabarmentzen da Nafarroa estatu espainiarreko erkidegoen artean ikastetxe pribatu-itunpekoen plaza kopuruari dagokionez, mota honetako plaza gehien eskaintzen dituen bigarren erkidegoa baita, ikasleen % 35,2 baitzegoen bertan matrikulatuta 2019-2020 ikasturtean, EAEn atzetik baino ez. Beraz, Hego Euskal Herria da buru ikastetxe pribatuekin egindako hitzarmenetan.

Gauzak horrela, mundu mailan itunpeko eskaintza gehien daukan erkidegoetako batean gaude, Maltaren, Erresuma Batuaren eta Belgikaren ildo berean, Europako diru publikoz ordainduriko ikastetxe gehien dauzkaten estatuak.




Iturria: Hezkuntza Ministeritza. www.epdata.es.



Iturria: ¿El concierto educativo es una oportunidad o una amenaza para la cohesión social?

Universitat Pompeu Fabra, 2019. www.upf.edu.

Hau guztia gutxi balitz, itunpeko-pribatuen ikasgela eta ikastetxe kopuruak haziz darrai gure erkidegoan, izan ere, bi urte eskasean 24 hezkuntza-unitate itunpeko gehiago batu baitizkio lehengo zerrendari (1.559 ziren 2017-2018 ikasturtean, eta 1.583 2019-2020an), eta titulartasun pribatudun bi ikastetxe oso gehiago bost urtean. Honek Aldaketaren Gobernu delakoaren agintaldiarekin egin du bat.




Iturria: guk egina Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txosteneko datuekin (NHST).

1.1.3. Bi sareren arteko segregazioaren datuak Nafarroan

a. Atzerriko jatorria duten ikasleak sareka


Araubide Orokorreko Irakaskuntza ez-unibertsitarioan, titulartasunari eta ikastetxeen arabera matrikulaturiko atzerritar naziotasuna duten ikasleen banaketari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da sare publikoak atzerritar jatorria duten ikasleen ia % 80a artatzen duela, eta itunpekoan hauen % 15a baino ez dagoela matrikulatuta.



Iturria: NHST 19-2020.

Nafarroako Eskola kontseilua.

Atzerritar naziotasuna duten Nafarroako ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuetan matrikulaturiko ikasleen banaketaren datuei erreparatuz gero, aldea estatuan baino are handiagoa dela ikus dezakegu, sare publikoak ikasleon ia % 85a matrikulatzen baititu.




Iturria: Ministerio de Educación y Formación Profesional. Estadística de las Enseñanzas No Universitarias. Subdirección General de Estadística y Estudios.

NHST 19-20. Nafarroako Eskola Kontseilua.

Jatorri kanpotarra duten ikasleen matrikulazioaren errealitatearen analisi historiko bat eginez gero, duela hamarkada batetik hona, ikus dezakegu nola datuek hazkunde desegokia erakusten duten; 2011n, itunpeko sareak ikasleon % 16,83 matrikulatzen zituen. 2018, aldiz, zifra hau % 14,54raino jaitsi zen, beraz, atzerrian jaiotako ikasleentzako % 85ak sare publikora jotzen zuen, 2019-2020 ikasturtean bere horretan mantentzen zelarik, aparteko aldaketarik gabe.

2/2006 Lege Organikoari erreparatuta, maiatzaren 3koa, badira 15 urte Hezkuntzak administrazio publikoen eskuhartzea ezartzen duela, diru publikoz finantzaturiko ikastetxeetan neurriak har ditzaten segregazioa ekiditeko. Hainbat datu erreparatuz gero, esan dezakegu gobernu batzuek zein besteek ez dutela arau horrek ezartzen duen eginkizun legal hori bete.



Iturria: Inklusio, berdintasun eta elkarbizitza Zerbitzua.

NHST 19-20. Nafarroako Eskola Kontseilua.


b. Eskola segregazioa maila sozioekonomikoaren arabera (ISEK)

Estatu espainiarra arrazoi sozioekonomikoengatik segregazio maila gehien duen seigarren estatua da Europar Batasunean. Aurretik, Bulgaria, Eslovakia, Txekiar Errepublikak, Errumania eta Hungaria baino ez daude. Era berean, Madril da Europako buru, Hungariaren atzetik soilik.

Izan ere, maila baxuko edo baxu-ertaineko familien kopurua % 8koa bada Europan, zifra hori % 25eraino hazten da estatu espainiarrean; horrek lau ikasletik bat zailtasun sozialak, ekonomikoak eta kulturalak dauzkan familia batetik datorrela esan nahi du.

Maila sozioekonomiko apalena duten ikasleen % 10arentzat (Isolamendu eta Gorard indizeen P10 delakoa), segregazio gehien daukaten erkidegoak Madril (0,45), Nafarroa (0,39) eta EAE Euskal Autonomi Erkidegoa (0,39) dira, eta gutxien dutenak Galizia (0,28), Gaztela eta Leon (0,29) eta Extremadura (0,30).

Nafarroan, datu hau oharkabean pasatzeko modukoa litzateke maila sozioekonomiko baxuko edo ertain-baxuko familien % 84,22a eta 4 ikasleko 3,3 ez baleude ikastetxe publikoetan matrikulaatuta, eta maila sozioekonomiko altueneko ikasleak ere ez balira getizatuko itunpeko ikastetxeetan egongo; beraz, bai Estatuan zein Nafarroan hezkuntza sistemaren «elitizazioaz edo gentrifikazioaz» hitz egin daiteke.




Iturria: Fundación BBVA.

Hitz berberetan, 2018-2021ko Nafarroako Inklusio Sozialerako Plan Estrategikoak azaltzen du nola ez duten soilik ingurune sozioedukatibo apaletako adingabeek, ia guztiek, ikastetxe publikoetara jotzen (ISEK indize sozioekonomikoaren arabera, -0,695ren azpitik egon behar da ikastetxe bat maila sozioekonomiko apala duela aitortzeko, eta baldintza hori betetzen duten ikastetxeetariko % 93aren titulartasuna publikoa da, % 7 baino ez dela titulartasun pribatuduna, alegia). ISEK maila altuena duten ikastetxeen % 100 itunpeko ikastetxe pribatuak dira, ordea.

Nafarroan, ingurune egokitzat jotzen dira hiri-inguruneak, halanola Iruñerria, Tuter, Lizarra, Tafalla, Altsasu, Lodosa eta Bera.

Segregazio indizeari erreparatuz gero (Gorardek, edo G Indizeak, beste ikastetxe batzuetara lekualdatu beharko lirakeen haur kopurua markatzen du, herrialde horretako desoreka desagertzeko), Save The Children eragileak eta beste hainbatek diote Nafarroan ikasleen % 33 lekualdatu beharko lirakeela zaugarrienak edo egoera sozioekonomiko apalena dutenak ez zitezen kontzentrazio-maila altuko ikastetxeetan egon (ISEK-en arabera, maila baxuena dutenen % 25en artean aurkitzen diren ikastetxeak izango dira azken hauek). **(Save the Children'en txostena: maila sozioekonomiko apala duten ikastetxeen % 90 publikoak dira).**

Irtenbide zuzenena kontzertazio-politika alde batera uztea eta itunpeko ikastetxe pribatuen publikazio prozesuari ekitea dela uste dugu **STEILAS**en.




Iturria: Javier Murillo y Cynthia Martínez-Garrido. Magnitud de la segregación escolar por nivel socioeconómico en España y sus Comunidades Autónomas y comparación con los países de la Unión Europea (Universidad Autónoma de Madrid).

Revista de sociología de la Educación
eta Informe Save The Children aldizkariak.

c. Eskola segregazioa berriazko hezkuntza laguntza jasotzeko eskubidearen arabera Nafarroan

Heziketarako berriazko laguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen aldagaiari erreparatuz gero, antzeko datuak aurkituko ditugu: laguntza eskubide hau aitortua duten ikasleen % 84,28 sare publikoan dago matrikulatuta.



Iturria: [NHST. Nafarroako Eskola Kontseilua](#).

Gure erkidegoan 5 ikastetxe daude non ikasleen % 70ek Berariazko Hezkuntza Premiak aitortuak dituen, egoera sozioekonomiko zaurgarriarengatik edota matrikulatze berantiarrengatik, eta guztiak publikoak dira. Horrez gain, BHLPi (Berariazko Hezkuntza-Laguntza Premiak dituzten Ikasleak) kopurua % 40-70 artean daukaten ikastetxeen % 85 ere publikoak dira, gainerako % 15 idiosinkrasia erlijiosoarekin itunduta daude, eta BHLEI ikasle kopurua % 10etik gora daukatenak 4 ikastola baino ez dira, eta ez dira inolaz ere % 20ra iristen.

Gauzak horrela Nafarroan, estatuko bigarren erkidego segretatuenean eta segregatzaileenean, egoera sozioekonomiko zaurgarrietatik datozen ikasleen kopurua % 90ean duten ikastetxeak zein % 10era eskas ailegatzen diren ikastetxeak izatea ahalbidetzen da, denak ala denak diru publikoz finantziatuak.

d. Matrikulazio berantiarreko ikasleak

Dosierrean azaltzen den moduan, itunpeko ikastetxeen presentzia dagoen hiri-inguruneetan atzerritar jatorria duten ikasle kopurua bikoiztu egiten da ikastetxe publikoetan, ohiko matrikulazio epeak erregistratzen direnetiko datuei erreparatuta. Ikasturtea aurrera joan ahala, zifra hau ez da orekatzen, aitzitik, herrira ailegatzen diren etorkinek, zeinak ISEK maila apalagoa izan ohi duten, publikoan matrikulatu ohi dituzte seme-alabak. Esaterako, 2017/2018 ikasturtean epez kanpo 1.084 ikasle berri sartu ziren sare publikoan, eta itunpeko pribatuetan 123 baino ez.

Azken urteotako epez kanpoko Nafarroako matrikulazio datuen analisia eginez gero, ikus dezakegu nola badagoen perfil honetako ikasleen matrikulazio kopuruaren hazkunde nabarmen bat, eta aparteko aldaketarik ez dagoela berauek artatzen dituen sare motari dagokionez. Azken hau, itunpeko ikastetxeek beranduago matrikulatzen direnentzat plaza kopuru bat gordetzeko derrigortasunik ez izatearen ondorio zuzena da.

Ildo beretik jotzen du birmatrikulazio prozesuak, edo ematen diren ikastetxe aldaketak matrikulazio epetik at itunpeko pribatuetan, hurrengo ikasturtean publikora aldatzen direnak hainbat arrazoi direla medio, hala nola erlijio ikasgaia jasotzeko derrigortasuna, gordekako tasa ordainketak, eta beste.

Matrikulazio berantiarreko ikasleen datuen konparaketa (sareka, Nafarroan)					
Etapa	Titulartasuna	Epez kanpoko matrikualzioa 2017/2018	Ehunekoak datu orokorreko	Epez kanpoko matrikulazioa 2018/2019	Ehunekoak datu orokorreko
Haur hezkuntza	Publikoa	291	88,45	564	87,04
	Itunpeko pribatua	38	11,55	84	12,96
	Guztira	329	100,00	648	100,00
Lehen hezkuntza	Publikoa	533	94,84	974	92,76
	Itunpeko pribatua	29	5,1	76	7,24
	Guztira	562	100,00	1.050	100,00
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	Publikoa	240	81,09	509	71,79
	Itunpeko pribatua	56	18,91	200	71,79
	Guztira	296	100,00	709	100,00
Guztira	Publikoa	1.064	89,60	2.047	85,04
	Itunpeko pribatua	123	10,36	360	14,95
	Guztira	1.187	100,00	2.407	100,00

Iturria: 2017/18 eta 2019/20 urteetako NHST txostenetako datuekin guk sortua.

[NHST. Nafarroako Eskola Kontseilua.](#)

e. Presentziala ez den irakaskuntzan ikasleen arteko arrakalaren handitzea

ISEK baxua duten ikasleek pairatzen dituzten arrakala mota desberdinak kezagarriak ziren ikastetxeetako bizikidetzak eta irakaskuntza presentzialak desberdintasunaren ondorioak arintzen zituen egoera batean, eta hori onartezina da online irakaskuntzak ikasle zaurgarrienen zailtasunak eta oztupoak handitzera daramatzen honetan.

Estatistika Institutu Nazionalak (INE) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ekipamenduari eta erabilerari buruz etxeetan egindako azken inkestaren arabera, % 19k ez du ordenagailurik, eta horiek errenta apalena dutenen arteko % 71 dira. Ikasle zaurgarrienen arteko desberdintasun arrakalak handitzen segitzen du era berean, haien familiek eta horien denboraren erabilerak biltzen dituzten dinamikek irakaskuntza kapitalari, kultura kapitalari eta kapital ekonomikoari eskaini beharreko laguntza edo arretarako aukerak murrizten dituztelako, bai ikasgelako zeregin zehatzetan zein hezkuntza ez-formalean, hala nola kirol, musika edo eskulan jardueretan, eta beraz bideojokoen, telebistaren edo sare sozialen menpe geratzen dira.

Hezkuntzari aplikatutako teknologia berrien atalean, Gobernuak aurtengorako proposatu duen aurrekontuaren igoerak, hein batean zenbait familiek ikastetxearekin komunikatzeko dituzten zailtasunak arindu ditzake, baina ez du balantza orekatzeko adinako pisu ekonomikorik; izan ere, egoera horretan aurkitzen diren sare publikoko familien ehuneko oso handi batek ez du ezta Interneterako sarbiderik ere.

Kasu guztietan, emaitza berbera da: krisiak langile-familietan zuen pisua areagotu egin da, berez diskriminatzaileak diren ikasgelen arteko aldeak betikotzera egiten segitzen du, betiere askoz gehiago sare publikoan, zeinak argi dakusan nola bere ikasleak diren kaltetuenak ohiko egoeretan zein ezohikoetan.

f. Aniztasunarekiko arretari baliabide gehiago eskaintzeko borroka

Azken urteotan, Nafarroako Hezkuntza Departamentua ikastetxeei aniztasunari erantzuteko baliabideak emateko sistema modu objektiboan hartzen saiatu da. Horretarako, ikastetxe-indize bat sortu du, irizpide batzuen haztapenaren bidez lortzen dena, hala nola ikastetxearen ikasle-kopurua, berariazko hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasleena eta horien tipologia, eta horri aplikaturiko aniztasunari erantzuteko neurriak.

Neurri honek, prozesuari gardentasun handiagoa badakarkio ere, hainbat zailtasun dakartza berekin, eta horren lehen arrazoa da aniztasunari arreta emateko aurrekontu urria, kontuan hartuta, gainera, eskubide espezifikokoak dituzten ikasleen kopuruak etengabe egin duela gora azken urteotan. Ondorioz, orientazioan diharduten langileek ez dute behar adina denbora beharrak detektatzeko, beharrezko ebaluazio psikopedagogikoak egiteko eta prozesuaren ondorioen diagnosi-ardatzak eta aniztasunari erantzuteko neurriak jasotzen dituzten txostenak egiteko, eta, halaber, ez dituzte kontuan hartzen, ardatzen barruan, horiek jasotzeko irizpideak betetzen ez dituzten ikasleak, baina laguntza-beharrak partekatzen dituztenak, ezta Zerbitzu Sozialen eta gisako organuen ezintasunak ere erreferentzia errealei helduko dieten gidalerro izango diren txostenak eta beste egiteko.

Gainera, unitate bereziak, hala nola TU/GNO (Trantsizio Unitateak/Garapenaren Nahasmendu Orokortua) eta CBU (Curriculum Bereziko Unitatea), ikastetxeko BHLEI ehunekoan, bere baliabideak esleituta dituela zenbatzen badira, aniztasunari erantzuteko itundutako sare pribatuak dituen baliabideak direnak baino gehiago direla dirudite aurrekontuetan. Horrela, handitu egin behar da ikastetxearen ISEKari aitortzen zaion garrantzia, egoera soziokultural zaurgarrian daudela egiaztatzen duen aurre-txostena duten ikasleei aitortzen zaiena alegia, hala nola aurreko urteetan ikastetxeak izan duen eskolaratze berantiarreko tasari eta egokitasun-, errepikapen- eta absentismo-tasei ematen zaien pisuari ere, ikastetxe batek abiapuntu erabat desberdina duten ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko izango dituen zailtasunen aurreadierazle baitira aipatutakoak.

1.2. Bi sare bereziren ikasle segregazioaren zergatiak

1.2.1. Itunpeko irakaskuntzaren historia Espainiar estatuan eta Hego Euskal Herrian, edo nondik gatozen eta nora goazen

Ikasle behartsuentzako lehen ikastetxeak **Erdi Aroan** agertu ziren, baina ia hautemanezinak ziren, noblezia baitzen prestakuntza jasotzeko eskubidea zuena. **Aro Modernoan**, nobleziatik zetozen ikasleek ikasle txiro talentudunak ordezkatu zituzten; izan ere, familiak nekez uztartuko zituen biziraupenaren aldeko borroka eta, aldi berean, etorkizun hobe bat lortzeko ere jardutea. **Humanismoan** zehar, gobernatuko zutenentzat eginiko hezkuntzak printzeengan eta nobleengan zentratzen jarraitu zuen, emakume bakan batzuei ere sarrera ahalbidetuz, erlijioaren eta moralaren zaindari gisa hez zitezten, eta bekadun behartsu apur batzuei ere bai. Gainerako biztanleak analfabetoak ziren, eta Eliza Katolikoak edo gremioek ahoz transmititzen zituzten ezagutzak.

Testuinguru espainiarrari dagokionean, **XVII. mendean** zehar, Hezkuntzarako Estatu planik gabe, behartsuak parrokietara joaten ziren, eta, karitatezko obra moduan eta baita fededunak erakartzeko lan modura ere, irakurtzen irakasten zieten lan egiten hasi behar izaten zuten arte; gerora, Ilustrazioan, Hezkuntza sekularizatu zen, eta irakaslegoa lehiaketa bidez hautatzen hasi zen, eta ez ordena erlijiosoaren eskutik.

1812ko Konstituzioarekin, lurralde osoan oinarritzko alfabetatzerako eskolak sortzea aurreikusi zen, hezkuntzaren unibertsalizazioaren eta hezkuntzaren erreforma orokorraren aldeko hautua eginez, baina Fernando VII.aren itzulerak berriro eman zion Eliza Katolikoari agintea Hezkuntzan, eta 1851ko Konkordatuak eskola publiko eta pribatuak erlijio katolikoaren doktrinaren arabera jardutera behartu zituen.

1857ko Moyano Legea lehen hezkuntza-lege integrala izan zen, adostasun politikoaren bidez analfabetismoa geldiarazten saiatu zen, zentro pribatuei jarduteko baimena emateko titulazioak eskatzen zituen eta emakumeentzako gai espezifikoak sortu zituen, baina Errestaurazioak baheketa ideologikoa ezarri zion Katolizismoaren aurka egon zitekeen orori. Krausistarik nabarmenenek, unibertsitateetik irten eta Irakaskuntzaren Erakunde Librea sortu zuten, zeinak Bigarren Errepublikak bultzatutako hezkuntza neurrietan eragina izango zuen: kultura herrixketara eramane zuten Misio Pedagogikoa sortzea eta eskolara joaten ez ziren milioi bat haurrentzat 27.000 eskola eraikitzeko proposamena, baina 29ko crackaren osteko finantziazio gabeziak proposamena garatzea eragotzi zuen.

1933an eskuinak hauteskundeak irabazi zituen eta **Hezkuntza Kontrarreforma** ezarri zuen, ikasleak gutxitu zituena, Ikuskaritza Zentrala eta ikasleen ordezkaritza kendu zituena eta hezkidetzak debekatu zuena, ezkerrek hurrengo hauteskundeetan irabazitakoan ikastetxe publikoak sortzeari berriro ekin zion arte. Kolpe militarrek eta Eliza Katolikoak babestutako erregimen frankistak, Bigarren Errepublikako hezkuntza-lana desagerrarazi nahi izan zuen, erregimenarekin bat ez zetozen irakasleak errepresaliatu eta erailez eta nazionalkatolizismoan oinarrituriko ideario pedagogikoa inposatuz ia 40 urtez (ikur kristauak eskoletan, sexuen bereizketa, eskola familiarren eskubide gisa, beste hizkuntza batzuk kentzea eta derrigorrezkoa ez zen hezkuntza esku pribatuetan jartzea).

Nafarroa Garaian, ezin ulertu daiteke euskarazko irakaskuntzaren egoera hizkuntzak azken mendeetan jasan duen errepresioa, segregazioa eta minorizazioa kontuan hartu gabe; XX. mendean areagotu egin zen egoera hau diktadura faxistarekin, eta gaur egun ere joera berak darrai

hein handi batean. Era berean, ezin da ulertu euskararen geografia diakronikoa eta gaztelaniaren eta/edo espainieraren botereak eragindako deseuskalduntze eta kolonizazio prozesu sistematiko guztia aintzatetsi gabe.

XVI. mendean, euskarazko lehen liburuak argitaratu ziren, Europako beste hizkuntza batzuetan egin zen bezala; hala ere, estandarizatzeko eta administrazio-hizkuntza gisa finkatzeko bidea, eta, beraz, hezkuntza ere, eten egin zen Gaztelaren inbasioaren ondorioz. Ondoren, hainbat politika etorri ziren bata bestearen atzetik, euskara esparru guztietatik desagerrarazteko. Egungo egoera ulertzeko, historia ezagutu behar da: administrazio-erabilera diskriminazioa, familia-transmisioa eragozteko hizkuntza-politikak, eskolan euskara erabiltzeagatik eskola-errepresioa (eraztunaren zein bestelako elementuen bidez seinalatzea, irainak, jazarpena, tratu txar fisikoak, etab.), erabilera publikoa debekatzea, etab. Azken batean, norbere buruarekiko gorrotoa lortu nahi zuten politikak dira, euskaldunek beren hizkuntza eta nortasunari uko egin eta eredu kolonial espainola asimila zezaten.

II. Errepublikako Euskal eta Nafar Estatutuaren proiektuak euskararen erabilera normalizatu zezakeen eskola publikoan, baina diktadura faxistak proiektuarekin amaitu eta errepresioa areagotu zuen. Eskola eredu glotozida espainiarrarekiko erresistentzia bakarra ikastolen bidez jazo zen frankismo berantiarrean, 60ko hamarkadan. Ikastetxe horietan euskarazko hezkuntzari ekin zitzaion, eta eskola publikoan ere murgiltze eredu posible zela ikustarazi zuen.

78ko erregimenarekin, nolabaiteko irekiera iritsi zen. Iruñeko edota Baztango udal-ikastolak sortzen dira esaterako, herriaren presioaren eraginez. Hala ere, 1986ko Euskararen Legeak normalizazio saiakera hori eten zuen. Horrela, inolako zorrotasun historiko edo soziolinguistikorik gabeko zonifikazio linguistiko bat inposatzen da, eskubideen urraketaren mapa bat dena, ez besterik. Ezinezkoa da modu okerrean izendaturiko eremu ez-euskaldunetan D ereduko lerroak irekitzea, eta 2008an Noainek, Arangurenak, Galarrek eta Beraskoainek baino ez zuten lortu. Aipatu legearen aldaketa batek 2015ean D ereduko lerroak irekitzea ahalbidetu zuen Nafarroa Garai osoko eskola publikoetan. Familien borroka beharrezkoa izan da euskarazko lerroak ireki ahal izateko, baita Eremu Mistoa delakoan ere: sinadura bilketak, manifestazioak, itxialdiak, etab. Azken bi urteotako Mendigorriako familien mobilizazioa da horren azken froga.



Estatu mailan, frankismo berantiarrean, aldaketaren beharra zinez nabarmena zen, baina araudiaren garapena eta gizartearen ikumoldearen aldaketa motela eta anbizio handirik gabekoa izan zen, eta mundu guztia pozik gera zediin, batez ere Eliza Katolikoa. Hezkuntza Lege Orokorrak (1970) hezkuntza-sistema kriterio teknokratekin egituratu eta historian lehen aldiz erabateko eskolatzea lortu bazuen ere, horren ondoren 1953an sinatutako Konkordatu frankistaren printzipioak birformulatu ziren, Elizari gehien axola zitzaizkion pribilegioak blindatuz: finantzaketa eta hezkuntza. Horrela, lotuta utzi zen Eliza Katolikoaren eta botere politikoaren arteko elkar hartzea, boterearekin lerrokatutako eragile politiko eta sozialen konplizitateek eta erantzukizunak dituztenen utzikeriak mantentzen dutena.

Estatu espainiarraren eta Vatikanoren artean akordio sekretuak egin ostean negoziatu zen **Konstituzio Espainola (1978)**; ez ziren negoziatu, ordea, ideologia bera edota egitura frankistak. Akordiook adosten dituzte, batetik, “Hezkuntza Eskubidea” (27.1 a artikulua), “Irakaskuntzarako Askatasuna” (27.1 b artikulua), “Katedra Askatasunerako Eskubidea” 20.1 artikulua, “Kontzientzia Askatasunerako Eskubidea” (14,16,20 eta 23 artikulua) eta “Botere Publikoen Erantzunkizuna Irakaskuntzaren Programazio Orokorrean” (27.5 artikulua) eta bestetik “Ikastetxeak Sortzeko Askatasuna” (27.6 artikulua), “gurasoen Eskubidea formazio moral eta erlijiosoa erabakitzeko” (27.3 artikulua) eta “legeak ezartzen dituen baldintzak bete dituzten Ikastetxeentzako laguntza” (27.9 artikulua); ez ordea “ikastetxea hautatzeko askatasuna”. Europar Batasuneko Eskubide eta Askatasunen Gutunak bai aitortzen duena zera da, “gurasoek irakaskuntza beren sinesmen erlijioso, filosofiko eta pedagogikoen arabera bermatzeko duten eskubidea”, eta hori jada bermatuta dago katekesiarekin eta erlijioa ikastetxeetatik kanpo irakastearekin.

Zazpi urte geroago, **LODEk (PSOE, 1985)** ikastetxeen dualtasuna arautu zuen; izan ere, eskola publikoak ezin izan zuen bere gain hartu 60ko hamarkadako hezkuntzaren unibertsalizazioaren eta hazkunde demografikoaren ondoriozko hezkuntza-eskaera guztia, Francoren diktaduratik zetorren inbertsio ezagatik, ikastetxe erlijiosoen finantzaketaren gardentasun faltagatik eta sareen arteko aurrekontu-desoreka iraunkorragatik. Hezkuntza doakoa zela nabarmendu zuen, sistema publikoaren bidez finantzatzea erabaki zuten ikastetxe pribatuentzako urteko diru-kopuru bat aurrekontuan sartuz, eta “ikastetxea indibidualki aukeratzeko askatasuna” ezarri zuen, baldin eta ikastetxe publiko batean plaza lortzeko eskaera kopurua eskainitakoa baino handiagoa bazen.

2002an, garatzera ailegatu ez zen **LOCE legea (PP)** onartu zen, baina “gurasoak” kontzeptua sartu zuen, “seme-alaben hezkuntzaren lehen arduradun” gisa, eta horrek errotik hautsi zuen Hezkuntzaren zentzu tradizionala, eskubide sozial gisa, nolabaiteko “bezzeroaren interesen meneko produktu” moduan jarri baitzuen. **LOEk (PSOE)** 2006an ideia hau berreskuratu zuen Hezkuntza Eskubidearen jatorrizko izaera soziala “ikastetxea aukeratzeko askatasuna” terminoarekin. Are, **LOMCE (PP)** bera Hezkuntzaren esparru luze-zabalean barreiatu zuen, “eskakizun sozialaren” arabera itunpeko lanpostu pribatuak sortzea ahalbidetuz, nahiz eta horiek aurreikusita egon eskaintza publikoan ere, eta lurzoru publikoa dohainik emanez ikastetxe pribatuak sortzeko.

Esparru horretan kokatzen da **LOMLOE (PSOE-UP)**. Izan ere, araudi guztiak finkatu arren, honako premisa hau ezarri da: “Administrazioek **BHLEI** ezaugarriaren plazen banaketa modu egoki eta orekatuan banatzea bermatuko dute, eta, horretarako, ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu bakoitzean eskolatu behar diren ezaugarri horietako ikasleen proportzioa ezarriko dute”.

Horren ondorio zuzena izan da familien nahia lehenetsi izana, interes kolektiboen gainetik. Horrek eragin du Estatua Europan ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik segregatzen dituztenen zerrendaren buruan egotea.

Zoritzarrez, itunpeko eskola pribatuak sorturiko arrabots mediatikoa gorabehera, jadanik presente ez zeuden mekanismo berri gutxi ezarri dira bai **LOEn**, bai **LOMLOEn** bai Nafarroako Eskolatzeko Dekretu berrian: edozein kuota mota kobratzea debekatzea, aurrez izena emateko eta matrikulatzeko



opera arte plazak erreserbatzea, ratio txikiagoak ikastetxearen berezko indizearen arabera eta baremoak lehentasunezko hainbat irizpideren arabera.

Horrela, eta datuek eta horiek gizartearentzat izan ditzaketen ondorioek adierazten dutenaren arabera, erdigunera ekarri behar dugu baztertuta dagoen askatasun kolektiboa, elkarrekin eta guztion ongizaterako eraikitako eskubide eta betebeharrak sozialena, ondasun eta zerbitzuen askatasun indibidualen nagusitasunaren ginetik, eremu pribatutik eta eremu pribaturako aukeraturikoak betiere, oztopo ekonomiko eta kulturalak mantentzen dituzten pribilegioak betikotu nahi dituztenen aldetik, indartsuenaren biziraupenaren logika darwinista betean, zeinak bere askatasuna inposatu baitiezaiokeen gainontzeko jende guztiari.

1.2.2. Sareen arteko segregazioaren zergatiak

a. Diru publikoa itunpeko irakaskuntza pribatura desbideratzeko prozesua

“Itunpeko irakaskuntzari” buruz dihardugunean, ezin ahantz dezakegu “pribatua” kontzeptua gehitzea, hau da, “Itunpeko irakaskuntza pribatua”, funts publikoak baliatzen diren titulartasun pribatuko enpresak eta erakundeak direlako (fundazioak, kooperatibak, etab.). “Pribatu” terminoa ez aipatzearena propio egiten da, titulartasuna disimula dadin eta zerbitzu publiko baten tankera izan dezan saiatzeko. Ikastetxe horiek jasotzen duten diru-laguntza nahikoa izango litzateke hezkuntza publikoko ber ordutegidun irakasleei pagatzeko, eta, gainera, kuuotarik gabe. Sarritan, funtsak hezkuntza arautuarekin zerikusirik ez duten zereginetarako desbideratzen dira.

Bestalde, itundu gabeko hezkuntza pribatua ere badago, hezkuntza merkantilizatuz etekinak lortzea helburu daukana. Estatistika Institutu Nazionalaren arabera (2009/2010 ikasturtea), krisialdi betean, Espainiako irakaskuntza pribatuak 674 milioi euroko mozkin arruntak sortu zituen, 2004/2005 ikasturtean baino % 13,1 gehiago. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza pribatuaren etekinak % 7,4 hazi ziren, eta unibertsitateko hezkuntza pribatuarenak, berriz, % 32,1. Horri guztiari familiek hezkuntza pribatuari egindako ordainketaren bidez lortutako zerga desgrabazioak gehitu behar zaizkio. (Iturria: “Qué hacemos con la Educación”. Agustín Moreno eta beste. Madril-2012).

Estatu mailari dagokionean, irakaskuntza pribaturako aurrekontua modu esponontzialean hazi da, eta, ondorioz, murriztu egin da irakaskuntza publikoan egindako inbertsioa. Horren erakusgarri dira Hezkuntzaren finantzaketari buruzko datuak; Hezkuntzako inbertsioaren batez bestekoaren nazioarteko indizea BPGaren % 7 da, eta UNESCOk aholkatutako gutxieneko ehunekoak % 6 da; aldiz, espainiar estatuan bideratutako ehunekoak beheranzko joera etengabea izan du:

2006 urtea	% 5	2015 urtea	% 4,2
2009 urtea	% 4,9	2016 urtea	% 3,9
2012 urtea	% 4,7	2018 urtea	% 3,7

Bada hamarkada bat baino gehiago Nafarroak Hezkuntzarako BPGren % 3 bainon ez duela bideratzen eta hor gelditu, diskurtso triunfalistan oinarrituta, esanez erkidegoak estatuko per capita BPG altuenetako bat duela, edo ikasle bakoitzeko gastu gehien egiten duen erkidegoetako bat dela, kontuan hartu gabe sistema batek Hezkuntzan egiten duen ahalegina dela bertako

agintariek horri ematen dioten garrantziaren adierazle nabarmena. 2021eko aurrekontuan, Nafarroak BPGren % 3,9 bideratuko du, hau da, 2020an baino 63 milioi euro gehiago, baina horietarik ia erdia egiturazkoak ez diren COVID-19 partidak izango dira, eta igoeraren heren bat baino gehiago itunpeko hezkuntza pribatura bideratuko da, unitate berriak diruz lagunduz derrigorrezko etapetan zein derrigorrezkoak izan aurreko eta ondorengo etapetan.

Hau da, Nafarroako Gobernua ez da hasi 35 urte baino gehiagoz egiteke dituen egitekoak betetzen hasi, titulartasun publikoko ikastetxeak eraikiz, itunpeko sare pribatuko ikasleak sare publikoan sar daitezen apurka-apurka, edo gaur egungo eremuetan espazioak zabalduz, edo institutuak sortuz edo itundutako eskola pribatuak publikatuz edo utzitako eraikinak ikastetxe bihurtuz, ez; horrez gain, egiaztatu daitekeenez, 10 urte badira azpiegiturarako inbertsioa eroriko garbian dagoela, eta ez garela oraindik ez 2009ko mailara ere ailegatu:

Azpiegituren aurrekontuaren garapena Nafarroan (€)						
Partida	2009		2012		2017	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eraikuntza, hornidura eta material didaktikoa	37.946.000	6,47	6.994.000	1,42	16.375.000	2,87
	2018		2019			
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%		
	16.628.000	2,84	22.900.000	3,6		

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomiko Atala, NHST 2019-20.

Comptos Ganberaren 2012 eta 2016 arteko itunpeko irakaskuntza pribatuaren finantzaketari buruzko txostenaren ondorioetan baieztatzen denez, “Hezkuntza Sailak egiten duen kontrolak gabeziak dauzka eta hobetu egin beharko luke; horretarako, Hezkuntzan unitate espezifiko bat sortzea gomendatzen da, hezkuntza-itunak osotasunean betetzen direla kontrolatzeko eta ziurtagirien justifikazioak eta euskarriak urtero berrikusteko”. (**Kontuen Ganberaren txostena**).

2019an, Hezkuntza Departamentuak **50/2019 Foru Agindua egin zuen, “bestelako gastuei” eta “langile osagarriei” buruzkoa**, itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Hala eta guztiz ere, hezkuntza-itunak zabalduz joan dira urteotan, ezta edozein lehiaketa publikotan gailendu beharko lirakekeen irizpide sozialak ere kontuan hartu gabe:

- Irakasleek lan baldintza okerragoetan dihardute: soldata baxuagoa, ordu gehiago eta ikasle gehiago ikasgelako.
- Itunpeko ikastetxe pribatuek ez dituzte nekazal eremuak artatzen, non zerbitzu publikoa garestiagoa den, ezta zenbait hezkuntza behar berezi ere.
- Itunpeko ikastetxe pribatuetariko asko Eliza Katolikoarenak dira, ideologizazio gogorra duen erakunde pribatua berau, eta diskriminatzailea, ikuspegi arras matxista eta LGTBIfobikoa duena.
- Ikastetxe hauen ehuneko handi batek familiei ekarpen ekonomikoa kobratzen die, hezkuntzari dagozkion legeen zein beste zenbait legeren arabera ilegala dena, eta hauek ez dira ageri Administrazioak ikuskatzen dituen kontabilitateetan.

1. Ikastetxeetako segregazioaren lehendabiziko zergatia: diru publikoz ordainduriko bi hezkuntza sare izatea

- Itunpeko eskola pribatuak zerga-salbuespenak edo zerga-kenkariak ditu, eta, zenbaitetan, Comptos Ganberak berak ere ez du horietarako sarbiderik.
- Zentro horiek izan ditzaketen zerga garrantzitsuenak honako hauek dira:
 - Sozietateen gaineko zerga:

Izaera juridikoa	Ikastetxe kopurua	Karga mota
10/1996 Foru Legea ezartzen zaien Ikastetxeak.	48	Zergak ordaintzetik salbuetsita; % 10 xede espezifikoak ez diren jardueretarako.
Kooperatiba babestuak.	15	% 17
Sozietate anonimoak/Erantzukizun mugatua.	3	Ohiko karga eta tasak.

Iturria: Kontuen Ganbera.

Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.

- Balio erantsiaren gaineko zerga: hezkuntza jarduera BEZetik salbuetsita dago (Estatuko diru-kutxari 1.500 milioi euro inguru emango lizkioke urtean). Hala ere, 19 ikastetxetan merkataritza-sozietate paraleloak eratu dira, hezkuntzako ez den helburu sozialarekin, azpiegiturak ikastetxeei errentan emateko. Horri esker, BEZari loturiko jarduera egin dezakete, eta itzulketa-eskubideak 2,66 milioi eurokoak dira.
- Zergak: gainera, kongregazio erlijiosoek probintzia edo elizbarruti-egoitza duten lekuan ordaintzen dituzte zergak, eta baliteke hori bat ez etortzea ikastetxeak Nafarroan duen egoitzarekin.
- Ondasun-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga: salbuetsita daude.
- Lurralde-ekarpena: Tokiko Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak berariaz ezartzen du itunpeko ikastetxe pribatuen eraikin eta lursailek ez dutela zerga hori ordaindu beharrik izango. Estatu mailan, ondasunen titularrak bat etorri behar du ikastetxearen titularrarekin, salbuespena berariaz eskatu behar da, eta zergapetzetik salbuetsita dauden azalerek itundutako irakaskuntzaren eraginpean daudenak baino ez dira. Hala ere, Nafarroan baldintza horiek ez dira eskatzen, eta, beraz, ondorio zuzena da erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen kopurua handiagoa dela Estatuko gainerako lurraldeekin alderatuta, eta udalek urtean milioi 1 euro baino gehiago jasotzeari uzten diotela, 5 milioi euro 2012-2016 aldian, hezkuntzako murrizketen urterik txarrenetan:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
Lurralde-ekarpenaren onura fiskalen estimazioa	959.712	988.917	996.818	1.005.550	1.006.062	4.957.061

Iturria: Kontuen Ganbera.

Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: salbuetsiak ere, 130.055 euro jasotzeari uzten zaio honengatik:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren onura fiskalen estimazioa	26.011	26.011	26.011	26.011	26.011	130.055

Iturria: Kontuen Ganbera.

Funts publikoekin finantzaturako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.

- Jose Maria Aznarren agintaldian 3.000 jabetza inguru inmatrikulatu ziren Elizaren izenean, horietako asko ikastetxe erlijiosoei loturikoak. Modus operandi hori aurreko mendeko hirurogeiko hamarkadan erabili zen, 1963 eta 1967 artean, Iruñeko Udalak Opus Deiko higiezin enpresei (Ingemenesa, Ciunsa, Inunsa, edo Inmudensa) 300.000 m² inguru utzi zizkien dohainik, eta beste 900.000 m² desjabetzeko espedientea sustatu zuen.
- Hainbat urtetan zehar, lurzoru publikoa utzi zaie itunpeko ikastetxe pribatuei, eta Eliza Katolikoak edo bestelako erakundeek ez dute inolako ekarpen ekonomikorik egin trukean:

Lagatzaile	Lagapen-hartzaile	Kanona	Lagapen urtea	Lagapen epea	Lagapen hartzailearen betebeharrak
Berako Udala	Labiaga Ikastola	Ez	1996	50 urte	Euskarazko irakaskuntza
Berako Udala		Ez	1982	Ez dago jasota	Euskarazko irakaskuntza
Ondare Zerbitzua	Ilundáin Haritz Berri Fundazioa	Ez	2008	5-20 urte	Berariazko irakaskuntza
Ondare Zerbitzua	Nuestra Señora del Puy	Ez	1978	20 urte*	Irakaskuntza ertainak
Tafallako Udala	Garcés de los Fayos Ikastola	Bai	2012	75 urte	Bigarren Hezkuntza
Arbizuko Udala	Gurasoen irakaskuntza-kooperatiba (Andra Mari Ikastola)	Ez	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota
Exarri Aranazko Udala		Ez	1986	Mugagabea	Irakaskuntza
Exarri Aranazko Udala		Ez	1987	Ez urte jasota	Haur eta Lehen Hezkuntza
Exarri Aranazko Udala		Ez	1998	50 urte	Ikastola handitzea
Exarri Aranazko Udala		Bai	2012	99 urte	Ikastetxea eraikitzea
Olaztiko Udala	Gurasoen irakaskuntza-kooperatiba (Íñigo Aritza Ikastola)	Ez	Ez dago jasota	2012an amaitu zen	Ez dago jasota
Altsasuko Udala		Bai	2012	50-99 urte	0-6 urtekoen ikastetxea
Altsasuko Udala		Ez	1977	Ez dago jasota	OHoko irakaskuntza elebiduna
Abartzuzako Udala	Andéraz Escuelas Pías	Ez	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota
Berriozarko Udala	Lantxotegi Elkartea	Ez	2011	15 urte	HLPP programak ematea
Berriozarko Udala		Ez	2016	15 urte	HLPPE programak ematea
Eguesibarko Udala	Santa María La Real	Bai	2005	99 urte	Irakaskuntza
Iruñeko Udala	Francisco de Jaso Ikastola	Bai	1997	50-99 urte	Ikastetxea eraikitzae
Iruñeko Udala	San Cernin	Bai	1990	50-99 urte	Ikastetxea eraikitzae

* Artzapezpikutzak ebatzitzat ematen ez duen arte luzatuko den epea.

1. Ikastetxeetako segregazioaren lehendabiziko zergatia: diru publikoz ordainduriko bi hezkuntza sare izatea

Guztira, 19 lagapen egin dira 11 ikastetxetan. 13 kasutan, lagapena doakoa da, eta gainerako seiengan, udal lagatzaileak honako kanon hau kobratzen die zentroei:

Lagatzaile	Lagapen-hartzailea	Kanona	Lagapen urtea	Lagapen epea
Tafallako Udala	Garcés de los Fayos Ikastola	11.000 euro urtean	2012	75 urte
Altsasuko Udala	Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba (Iñigo Aritzta Ikastola)	1.000 euro urtean	2012	50-99 urte
Etxarri Aranazko Udala	Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba (Andra Mari Ikastola)	30 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	2012	75 urte
Eguesibarko Udala	Santa María La Real	25.350 euro urtean	2005	99 urte
Iruñeko Udala	Francisco de Jaso Ikastola	11.797 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	1997	50-99 urte
Iruñeko Udala	San Cernin	10.368 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	1990	50-99 urte

Iturria: Kontuen Ganbera.

Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.

Azkenik, nabarmentzekoa da Nafarroan itunpeko gela bakoitzeko ordaintzen den kontzertu-modulua, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 59.000 eurotik, Batxilergoko 91.000 eurora bitartekoa dela. Estatuko erkidegoen artean, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik du modulu altuagoa; beraz, Estatu osoko bigarren itunpeko irakaskuntza pribaturik garestiena daukagu.

Itunpeko modulu bakoitzaren kostua					
	2. zikloa Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH 1.a eta 2.a	DBH 3.a eta 4.a	Batxilergoa
Estatuak ezarritako gutxienekoa	37.823	37.823	54.855	61.939	73.804*
EAE	64.742	67.810	87.059	105.595	106.748
Nafarroa	59.361	68.574	83.406	95.555	90.978
Murtzia	58.329	63.787	87.410	93.811	92.903*
Madril	53.797	55.024	74.619	79.243	88.731*
Gaztela-Mantxa	40.313	43.480	59.311	63.157	75.273*

* Kasu horietan, dena delako administrazioak zenbateko horri 3.606,00 euro kendu ahalko dizkio gehienez, ikasleen finantzaketa osagarriaren ondorioz, hezkuntza itun berezi horiek partzialak baitira.

Iturria: Kontuen Ganbera.

Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroan, familiek ikastetxe erlijiosoei eta ikastolei ordaintzen dizkieten borondatezko kuotek % 25 desgrabatzen dute errenta aitopenean, eta, beraz, baliabide gehien dituzten familiek behar baino zerga gutxiago ordaintzen dituzte.

b. Ikastetxea hautatzeko askatasunaren mitoa eta pentsamolde neoliberalak hezkuntzan

Familiak aukeratzeko duten askatasunari dagokionez, irakaskuntza pribatizatzearen aldekoek “aukeratzeko askatasuna” haizatzen dute familiak nahi duten ikastetxea aukeratzeko duten eskubide gisa, ikastetxea aukeratzearen lehentasuna eta hezkuntzarako oinarritzko eskubidea parez pare jarritz. Ikusi dugunez, Konstituzioan ez dago jasota Estatuak behartuta dagoenik zentro pribatuetan doakotasuna bermatzera, familiak botere publikoek sortutakoak beharrean bestelako zentroak aukeratzeko hutsagatik (Auzitegi Konstituzionalaren hainbat epaik esaten dute “baliabide publikoak ez direla bideratu behar, baldintzarik gabe, norbanakoen lehentasunek nahi dituzten lekuetara”).

Ikastetxea askatasunez aukeratzeko zenbait norbanakoren lehentasunen adierazpen bat da, non plaza publiko bati uko egiten zaion, eta, beraz, ez da Estatuak funts publikoen bidez bermatu behar duen eskubide bat. Azken horren arabera, aukeratzeko askatasuna pribilegio bat da, eta ez eskubide bat, zeinaren oinarrian baitagoen estrategia bat hezkuntza merkatuaren pribatizazio prozesuaren baitan kokatzeko, horrela itunpeko irakaskuntza pribatua hedatzeko. Nafarroako hainbat eremutan, horri D ereduaren sare publikoan ez egotearen ondorioak gehitu behar zaizkio, familiak itunpeko pribatuaren alde egitera behartzen baititu.

Gainera, egiten dena ez da ikastetxea hautatzea. Informazio gehien duten familien ikastetxeen bazterketa bat egiten dute, batetik, eta itunpeko ikastetxe pribatuak ikasleak hautatzen dituzte, bestetik, hainbat modutan: haien egoitza edo ikastetxeak auzo eta hirigune jakin batzuetan kokatuz; ikastetxeari emaitzak bermatuko dizkieten ikasleak eta rankingen goiko aldean daudenak hautatuz; errendimendu baxua izateagatik emaitza horiek arriskuan jar ditzaketenei trabak jarritz edota horiek kanporatuz; “aukerako” kuota-mekanismoak ezarriz, maila ekonomiko jakin bat dutenak soilik sartu ahal izan daitezkeen eta egonkortasun ekonomikoa berma diezaieten, edota segregatzeko eta “bezeroak” hautatzeko aukera emango dieten programak txertatuz.

Baina, nahiz eta aukeratzeko eskubidearen ustezko printzipio batetik abiatu, gogoratu behar dugu eskubide hori ez litzatekeela unibertetsala ere izango, ez baita herri guztietan gauzatzen, baizik eta soilik ikastetxe bat baino gehiago dituzten hiri-eremuetan, eta, horrez gain, ez baitira hizkuntza-aukera guztiak betetzen; izan ere, hizkuntza-eredu guztiak ez dira erkidego osoan eskaintzen, eta ez zazkie ikasle guztiei eskaintzen, familia askok ezin baitute kuota kobratzen dituen ikastetxe bat aukeratu; 26. ikasleak ere ezingo luke matrikulatu, esaterako, 25 ikaslerekin ratioa betetzat ematen duen ikastetxe batean.

Neoliberalismoa ez da merkatu librean eta pribatizazioan oinarritutako kapitalaren sistema ekonomiko bat soilik, hori icebergaren bistako zatia baino ez baita. Garrantzitsuena da herritarren pentsamoldea kolonizatu duela, eta bizitzaren egoerek dakartzaten arazoak konpontzeko alternatiba bakarra dagoela pentsarazi duela. Alternatiba hori merkatuko ekonomian, eta haren zerbitzura dagoen hezkuntzan, datza.

Premiazkoa da gogoeta egitea ustelkeria garrantzitsuena finantzarioa soilik ez denari buruz, baizik eta gizarteak pairatzen duen buru-garbiketara, batez ere kapitalaren jabetzako diren komunikabide batzuetan izandako zenbait post-egia eta tranparen ondorioz ere, badela.

c. Oinarrizko kuota, ikasketa edo jarduera osagarriari lotutako derrigorrezko zerbitzuak, arrazoi ekonomikoengatiko diskriminazioa dakartenak

LODEk, Hezkuntza-Itunen Oinarrizko Arauak arautzen dituen legeak, 14.1 artikuluan zehazten du hezkuntza-itunak ikastetxe pribatuaren titularra behartzen duela irakaspenak doakotasunez ematera, eta inola ere ezin izango dela jaso kontrapartida ekonomikorik jarduera horren truke, ez zuzenean eta ez zeharka.

Nahiz eta honek horrela izan beharko lukeen, errealitatea zera da, itunpeko ikastetxe pribatuen % 90ek hileko kuota kobratzen dituztela, eta kasuen % 89an, gainera, nahitaezkoak direla, CEAPAk (Ikasleen Gurasoen Elkartearen Espainiako Konfederazioa) eta CICAk (Ikastetxe Pribatuen eta Independenteen Elkarteak) urtez urte egiten duten ikerketa batean jasotzen denez. Lehendabizikoak, legez kanpokoak diren kuota ordaintzera behartuta daudelako, eta bigarrenak, berriz, “lehia desleiala” dela medio.

Ondorioak argiak dira:

1. **“Gardentasunik eza eta familien zailtasuna** aurre egin beharreko kuoten zenbatekoa eta kontzeptuak argi adierazten dituzten informazioa eta dokumentuak lortzeko”. Nafarroan, txostenaren arabera prezio-orria entregatzen ez duten zentroak honako esteka honetan zerrendatuta daude: [PowerPoint aurkezpena \(cicae.com\) Ikastetxe Itunduen Prezioen Azterketa 2020ko txostena](https://www.cicae.com/).
2. **Txostenerako Nafarroan bisitatutako ikastetxeen % 100ek oinarrizko kuota kobratzen diete** familiei, izendapen ezberdinen pean. Batez besteko oinarrizko kuota 46,45 eurokoa da, eta maximoa hilean 158,40 eurokoa da San Cernin ikastetxean, eta minimoa hilean 10,82 eurokoa Tantirumairu ikastolan.

Kostua guztira, beste zerbitzuak gehituz

Ikastetxea	Kuota hilabeteko	Kuota bakarra	Matrikula/ Gastu orokorrak	Jantokia hilabetean	Ordutegi luzapena (ordu 1 hilabetean)	Eskola materiala urteko	iPADA (teknologia berriak)	Eskola-istripu aseguruia	Orientazio psikopedagogikoa	Erizaintza/medikua/asegurua	Plataforma digitala	Garraioa	Proiektu propioa	Hilabeteko gastuak guztira	Urteko gastuak guztira	Denetara
Claret Larraona	53,70			131,80	23,80	50,00		26,05						209,30	76,05	216,91
Lizarra Ikastola	41,45			99,85		96,00		15,00						141,30	111,00	152,40
Amor de Dios-Regina Pacis	30,00			110,00	20,00	48,00		20,00						160,00	68,00	166,80
Calasanz Pamplona	55,50			132,25	25,00	25,00								212,75	25,00	215,25
Compañía de María Tudela	28,00			143,00	35,00	120,00		40,00						206,00	160,00	222,00
Esclavas Sagrado Corazón de Jesús	37,90			128,00	24,00	152,00								189,90	152,00	205,10
Escolas Pias	40,00													40,00		40,00
Garcés de los Fayos	90,00													90,00		90,00
Iñigo Aritza	90,30		66,00	110,00	40,00	21,20							72,00	240,30	87,20	249,02
La Milagrosa	14,00			117,00		132,00								131,00	132,00	144,20
Miravalles	146,00		117,00	12,00										275,00		275,00
Ntra. Sra. del Huerto	73,00		128,00	30,00	75,00									231,00	75,00	238,50
Sagrado Corazón Alsasua	28,50		114,00		38,25									142,50	38,25	146,33
San Cernin	132,00	500,00	132,00		100,00									264,00	100,00	274,00
San Ignacio	74,00		70,00	115,00	25,00									214,00	70,00	221,00
Santa Ana Estella	33,00			125,00	22,00						40,00			180,00	40,00	184,00
Santa Catalina Laboure	13,50			108,00	25,00									146,50		146,50
Santa Luisa de Marillac	40,00			140,00	44,00	50,00								224,00	50,00	229,00
Santa Teresa de Jesús	63,00	85,00		128,50	25,00									216,50		216,50
Santo Tomás Pamplona	37,00			122,00	36,00									195,00		195,00
Tantirumairu Ikastola	10,82			84,00	10,00									104,82		104,82
Vedruna Pamplona	54,00			151,80	13,00			25,00						218,80	25,00	221,30
La Presentación	18,00			116,00							18,00			134,00	18,00	135,80
Liceo Monjardin	60,00			123,00										183,00		183,00
Luis Amigó	110,00			127,00	40,00			21,00						277,00	21,00	279,10
Mater Dei	53,00			124,00		40,00								177,00	40,00	181,00
Jaso Ikastola	145,00	127,00	50,00		34,00									195,00	34,00	198,40

Iturria: Estudio de precios de Colegios Concertados. Informe Final julio 2020 (página 45 y 49). cicae.com.



12 hilabetetako kuota		
HH eta LH	- Dohaintza	75 €* (PFEZean kenketa)
	- Ekarpina	40 €
	- Comedor	50 €
	Guztira	165 €* 145 €. Bigarren seme-alaba eta ondorengoak.
	Mailegua	30 € familia kuota.
Aukerako zerbitzuak	Autobusa	62,56 € (10 kuota). Zerbitzu erdia edo eguneka erabil daiteke.
	Hurtzaindegia	25 € (10 kuota).
12 hilabetetako kuota		
DBH	- Dohaintza	75 €* (PFEZean kenketa)
	- Ekarpina	40 €
	Guztira	115 €* 91 €. Bigarren seme-alaba eta ondorengoak.
	Mailegua	30 € familia kuota.
Aukerako zerbitzuak	- Jantokia	60 € (10 kuota).

* “Mailegua” kontzeptuaren kuota eskola-bizitzaren zikloa amaitzean itzultzen da.

* + Bi kuota “eskola materiala” urtean 17 € x 2 = 34 €.




Kuotak familiako	Zenbatekoa	Noiz kobratu	Zenbatero	Oharrak
Kooperatibista kuota	270,46	Behin	Bazkide egitean	
Inbertsioak	28,70	Hilabetero	Irailetik abuztura	Familia guztiek
Lan kooperatiboa	14,95	Hilabetero	Irailetik ekainera	Aukeran: urtean 12 orduz lan egitea
Eskola materiala	58,29	Uztaila	Behin	2 urtetatik DBHrarte
Loteria	75,00	Abendua	Behin	Aukera: loteria saldu beharrean 15 € ordaindu
Kuotak ikasleko	Zenbatekoa	Noiz kobratu	Zenbatero	Oharrak
Ikastola	49,09	Hilabetero	Irailetik abuztura	2 urtetatik DBHrarte
Ikastola 0 urte. 8 ordu	181,47 + 49,09	Hilabetero	49,09 Irailetik abuztura	181,47 Irailetik uztailean
Ikastola 0 urte. 5 ordu	135,00 + 49,09	Hilabetero	49,09 Irailetik abuztura	135,00 Irailetik uztailean
Ikastola urte 1. 8 ordu	165,00 + 49,09	Hilabetero	49,09 Irailetik abuztura	165,00 Irailetik uztailean
Ikastola urte 1. 5 ordu	123,00 + 49,09	Hilabetero	49,09 Irailetik abuztura	123,00 Irailetik uztailean

Iturria: Estudio de Precios de Colegios Concertados Informe Final julio 2020. cicae.com.


3. **Borondatezkotasun testatzeren arabera**, ikastetxeen % 42k ez dute kuoten borondatezkotasunaren kontzeptua aipatzen elkarrizketan, eta kuota hori ez ordaintzearen ondorioak honako hauek dira:

- Ez ordaintzeko aukera: Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuen % 37an.
- Borondatezkotasuna: % 48an.
- Ez du informaziorik ematen: % 15ek.




Iturria: cicae.com.

4. Nafarroako batez besteko **kobrantza-presioaren indizea** 5,11koa da, eta kobrantza-presio handiena honakoek dute: Lizarra Ikastolak, San Inaziok, Santa Teresa Jesusenak, Tantirumairu Ikastolak eta Jaso Ikastolak, 9ko indizearekin.



Iturria: cicae.com.



Iturria: cicae.com.

Behar-beharrezkoa da legedia betetzea, eta Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren zein Hezkuntza Ikuskaritzaren Zerbitzuaren kontu-hartzailetzek Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Araudiko 41. artikulua ezartzen duen finantza-kontrola gauzatzeko, bai eta Comptos Ganberak eta Ekonomia eta Nominen Azterketa Zerbitzuak egiten duten auditoretza ere, itunak berritzea ukatuz, horiek araututakoak ez betetzeagatik.

d. Itunpeko ikastetxe pribatuetan erlijio katolikoaren irakasgaiaren derrigortasuna

Familia bati galdetzen zaionean zein diren haien seme-alabak itunpeko irakaskuntza pribatuan matrikulatu izanaren arrazoiak, gehiengoak erakundearen ideiarekin edo fundazio-proiektu kristauarekin identifikatzen direla erantzuten du.

Hala ere, beraien burua pertsona ateotzat, agnostikotzat edo fedegabetzat duten pertsona gehien dituen erkidegoetako bat da Nafarroa, biztanleriaren % 41 alegia, Ferrer i Guàrdia Fundazioak egindako txosten baten arabera, zeinak estatu espainiarreko erjiozkotasunaren eta laiktasunaren erradiografia bat erakusten duen.

LOMLOEk erabat indargabetzen du LOMCE, eta, horrela, LOEk ezarritako egoerara itzularaziz, non Vatikanoarekin eginiko akordioak berriz ere indarrean sartzen diren. Horren arabera, Erlijio Katolikoa nahitaez eskaini beharreko arlo edo irakasgaia da, eta borondatezkoa d ikasleentzat (bigarren xedapen gehigarria), bai eta Balio Etikoak eta Moralak ere, erlijio katolikoarenaren ordezkotzako modura. Hala ere, ideia katolikodun itunpeko ikastetxe pribatu gehienek ez dute Balio Etikoak eta Moralak irakasgaia eskaintzen, eta, ondorioz, beste erlijio batzuetako (Islamikoa, esaterako) familiek ikastetxe publikoetara egiten dute ihes, zeinak bi arloak eskaintzen dituzten eta legea betetzen duten.


Nafarroan, alderdi politiko gehienek hainbatetan eraman dituzte mozioak Parlamentura, irakasgai honetan emandako saioak murrizteko, eta are, azken legegaldietako akordio programatikotik ere, gehiengo argi batek erlijioa eskoletatik erretiratzearen alde egin du. Hala eta guztiz ere, puntu hori betetzeke geratu da, eta horrek eragin zuzena du Nafarroan eskolek arrazoi erlijiosoengatik jasaten duten segregazioan.

e. Eskola pribatuaren bikaintasunaren mitoa

Egun espezifikotik egindako nazioarteko ebaluazioak, oro har, zehazki hartzekoak badira ere ezarpen-arazoengatik, lurraldean zehar dauden gorabeherengatik eta gainerako kasuistekengatik, datuen arabera, ISEK baxua duten ikastetxeak dira errendimendu akademikoan zailtasun handienak dituztenak.

Zifratik, horrek ingurune hobetoetatik datozen ikasleak dituen ikastetxe batean ikasten duen pertsona batek, batez beste, PISAko zientzietan 67 puntu gehiago lortu dituela esan nahi du, baliabide gutxiagoko ikasleak dituen institutu batean matrikulatutako batekin alderatuz (PISAren 67 puntu bi urteko ikaskuntzaren baliokide dira). Hau da, ikasturtea errepikatzen duten ikasleen kopurua, absentismo-tasak edo eskola goiz uztearen tasak askoz handiagoak dira indize sozioekonomiko eta kultural baxua duten ikastetxeetan, eta bikoitza inguru Nafarroaren kasuan.

Hala ere, ELGA Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen eremuko hasiera bateko aldeak murriztu egin dira, eta herrialde gehienetan (14tik 12) ez dira esanguratsuak, behin ikastetxeen eta ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta. Egoera ekonomiko onetatik datozen ikasleak itunpeko ikastetxe pribatuak egotea, eta, ordea, beste batzuetara maila sozioekonomiko apalagoa duten ikasleak segregatzea, dira Estatuak nazioarteko proba diagnostikotik urte urte lortzen dituen emaitza txarrak ondoen azaltzen dituzten gakoetako bat.



Iturria: PISA 2018 txostena. Hezkuntza Departamentua. navarra.es.

Bestalde, Comptos Ganberaren “funts publikoekin finantzaturako unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ikastetxe pribatuetan, 2012-2016” txostenak adierazten duenez, nahiz eta itunaren araubideak publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatzea eskatzen duen langileen kontratazioan, berau Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuetako batean baino ez da behar bezala betetzen.

Ezin da egiaztatu, ezta ere, Comptos Ganberak itunpeko ikastetxe pribatuei buruz berrikusi zituen kontratazioetan merezimendu zein gaitasun-printzipioak aplikatu zirenik, batez ere Compañía María de Tudela eta San Cernin ikastetxeei dagokienez. Beraz, ezin da baieztatu itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleak ikastetxe publikoetako irakasleak baino hobeto prestatuta daudenik; izan ere, ikastetxe horietako gehienek oposizio-lehiaketako proba batzuk gainditu behar izan baitituzte, bai kontratazioarako zerrendetan sartzeko zein funtzio publikoan jarduteko.

f. Pobreziatik eta gizarte-bazterkeriatik aldentzeko interesa

Nahiz eta Nafarroa izan “biztanle atzeritarrak gutxien baztertzen dituen erkidegoetako bat”, estatu mailako neurketaren arabera, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (Oberaxe) 2009. urtean egindako “[arrazakeriaren eta xenofobiaren bilakaera Espainian](#)” ikerketaren arabera, CIS Ikerketa Soziologikoen Zentruaren galdeketeratik abiatuta, erkidegoko

biztanleen % 38k uste du Nafarroan “handiegia” dela immigranteen presentzia. Gure erkidegoan populazioaren zati batek askotariko arazoak dituela aitortzea, pobreziaz eta langabeziaz bestelako arazoak, zeinak eragina duten beraien osasun, etxebizitza, bizikidetasun edota parte-hartze sozialean, esaterako, egoera hobetzen hasteko lehendabiziko pausoa da.

Gizartearen zati bat banandua, desberdina edo beste batetik kanpo dagoela hautemate horretan dautza arrazakeriaren erroek. Hortik datoz arrazaren, kulturaren eta erlijioaren supremazismoaren ideiak... baina baita aporofobiatik ere, herritarrei lana baldintza duinetan -ez subsidio bat- eskaintzeko gai ez den gizarte batek sorturiko beldurra edo arbuioa dena. Gizarte hori, doako ongizatea populazio osoari eskaintzeko ere ez da gai, ezta hezkuntza inklusibo bat eskaintzeko, segregazio eta estigma gabekoa, ikasle guztiak kontuan hartuko dituen, haien baldintza ekonomikoei, sozialei edota kulturei erreparatu gabe.

Hezkuntza inklusibo honek emaitza egokirik duela lortu datuek berresten digute eta, gainera, badira urteak zenbait komunikabide arbuio hori sustatzen ari direla. Segregazio etnikoa ez da fenomeno berria Nafarroan; izan ere, atzerriko immigrazioa baino lehen, ikastetxe batzuk jada getizatuta zeuden, ikasle ijito pobreen ehuneko handiak baitzituzten. Zentro horiek dira gaur egun segregazio-tasa handienak dituztenak. Beraz, arrazismoa hainbat bazterketa-egoeratan islatzen ari da, non kolektibo etniko minoritarioetako edo arrisku-taldeetako kideak zentro eta eremu jakin batzuetan pilatzen ari diren, eta, ondorioz, kolektibo horretako kide sentitzen ez direnek edo seme-alabak hezteko beste ingurune bat hobesten duten pertsonak ihes egiten dute.

1.3. Beste segregazio prozesu batzuk Hezkuntzan

1.3.1. Ikastetxe publikoen arteko getizazioa

Nahiz eta datuak ez izan horren kezkarriak, ikastetxe publikoetan ere aurki dezakegu segregazioa, eta badaude ikastetxe publikoak non ikasleek baliabide ekonomiko gehiago dituzten, eta baita kontrako egoeran daudenak ere.

Azken urteotan, itunpeko ikastetxe pribatuetakoa ikasleen ehunekoek bere horretan darraite; hala ere, ikastetxe publikoen arteko segregazioak gora egin du, batez ere metodologia, hizkuntza, programa edo espezializazio-eskaintza desberdinak daudelako.

Horrela, esan dezakegu neoliberalismoak eragina izan duela eskola publikoan ere, eskaintza bereziaren ideiarekin bat egin baitu ikasle gehiago eta “hobeak” eta irakasle gehiago eta “hobeak” bereganatzeko. Gauzak horrela, ikastetxeen eta zuzendaritza-taldeen espirituan, jardueren etengabeko salmentaren dinamika ezarri da, eta haien “produktuak” marketing logika baten arabera erakutsiz beste ikastetxe batzuekin alderatzeko, eta horrek irakasleen eta familien arteko harremanak tenkatzen ditu, eta antsietatea eta estresa handitzen ditu ikasgeletan, ikastetxeen arteko borroka batean egoera hobeagoetatik datozen ikasleak haienganatzeko, Hezkuntza logika merkantilista eta lehiakor batean jarriaz.

LOMLOEren onarpenarekin, ezabatu egin da PPren LOMCEk eskola pribatu itunduaren alde ezartzen zuen disfuntzioa, baliabide ekonomikoak ikastetxeen emaitzen rankingaren arabera ematen zituena.

1.3.2. Itunpeko ikastetxe pribatuen arteko getizazioa

a. Titulartasun pribatuko ikastetxe motak

Ondoko koadroan Nafarroako titulartasun pribatuko 7 ikastetxe motak zerrendatzen dira, Administrazioarekin ezarrita dauzkat harremanen eta erregulazioen arabera:

Ikastetxe mota	Harremana administrazioarekin	Kopurua
Kongregazio erlijiosoetako eta kristau-inspirazioko ikastetxeak	Ituna	38
Nafarroako Ikastolak	Ituna	13
Kooperatiba ereduko ikastetxeak	Ituna	2
Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Espezifikoak	Ituna	2
GKEak eta fundazioak	Diru-laguntzen Foru Legea	9
Colegio Sagrado Corazón (Altsasu) eta Centro Padres Reparadores (Gares)	1995eko Diru-laguntzen Foru Legea de subvenciones (elizbarrutiko mintegi txikiak)	2
Baimenduriko beste ikastetxe batzuk, laguntza gabekoak (Colegio Evangelista, Foro Europeo, Ramiro Mata, British School of Navarra, Creanavarra eta CTL Formación).	Batere ez	6

Iturria: **Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.**

Gehiengoa, % 83, itunen sistemaren arabera arautzen dira; beraz, ikasleen banaketak erkidegoko ikastetxe publikoen banaketaren antzekoa izan beharko luke. Hala ere, itunpeko ikastetxe pribatuetara jotzen duten familia behartsuetako ikasleen ehunekoa, berez, erdira jaisten da, ikastolak ere aztertzen baditugu:

Ikastetxe mota, titulartasunaren arabera	Matrikulaturiko ikasle kopurua guztira	BHLEI ikasle kopurua	Horien ehunekoa, ikasle kopurua osoarekiko	Ehunekoa Nafarroako BHLEI kopuru osoarekiko
Ikastolak	3962	323	% 8,15	% 2,74
Itunpeko ikastetxe pribatu erlijiosoak	17454	2864	% 16,40	% 24,30
Ikastetxe publikoak	26166	8595	% 32,84	% 72,95

Iturria: Guk sorturiko taula, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak (EDUCA) emaniko datuekin.

b. Itunpeko ikastola pribatuak

Horrela, eta baliabide gutxiko familietako kide izateagatik berariazko hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasleen datuei erreparatuz, eta hauek matrikulatuta dauden ikastetxeak titulartasunaren

arabera sailkatuz, ikus dezakegu ez dagoela ikastolarik Nafarroan non BHLEI kopuruak % 20a gainditzen duen, eta horrelako ikasleen kopurua % 70etik gora duten bost ikastetxeak, guztiak ere publikoak direla; beraz, esan dezakegu itunpeko ikastola pribatuen barruan dagoela Nafarroako eskola-gentrifikazio handiena:

BHLEI ehunekoa	Ikastetxe publikoak	Itunpeko ikastetxe pribatu erlijiosoak	Ikastolak eta kooperatibak
% 70 baino gehiago	5	0	0
% 40 - 70	17	3	0
% 20 - 40	27	15	0
% 10 - 20 %	12	12	11
% 0 – 10 %	1	4	4

Iturria: Guk eginiko taula Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak emaniko datuekin (EDUCA).

c. Kongregazio erlijiosoek edo inspirazio kristau edo katolikoa duten ikastetxeak

Erljio-titulartasuneko itunpeko ikastetxe pribatuen artean ere aldeak ikus ditzakegu; praktikan egiazko gutxiengoa badira ere, Nafarroako gisa honetako ikastetxeen % 8 baino ez, duela zenbait urtetatik hona kolektibo behartsuetan “espezializatu” diren erlijio-kongregazioak badaude, eta maila sozioekonomiko altudun familietako ikasleentzako ere, erlijio-titulartasuneko beste ikastetxe batzuk mantentzen dituzte. Kongregazio horiek berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei eusten diete beren ideietan, nahiz eta Estatu osoan nahitaezko Balio etikoen irakasgaia eskaini gabe jarraitzen duten, beren hezkuntza proiektuaren erlijiositatean babes hartuta.

Beste muturrean, Nafarroan fundazio edo kooperatiben babespean enpresa gisa funtzionatzen duten itunpeko ikastetxe pribatuak ere badaude, azpiegitura faraonikoak dituzten hirigune pribilegiatuetan batzen direnak eta “borondatezko” ekarpen neurrigabeak jasotzen dituztenak.

Ikastetxe horiek publiko gehienek ezin eduki dituzten instalazioak edo ekintzak dauzkate, Eliza Katolikoak dituen pribilegioei esker, baina diru publikoa jasotzen jarraitzen dute. Horrela, zergadun guztiok ordaintzen ditugu gure zergekin haien eliteko zentroak, praktikan garestiegiak direnak herritar kasik guztientzat.

1.3.3. Hizkuntza segregazioa: Hizkuntza Ereduak, PAI eta Atal Elebidunak

Nafarroan ezarritako hizkuntza-ereduen banaketak ere segregazioa eragiten du. Hezkuntza Departamentuaren kalitate eta ebaluazio ataleko datuen ISEK adierazlea hartuta, kuartilik baxuenean dauden ikasleen % 67 A eta G eredueta ari da.

Gainera, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako atal elebidunek eta Curriculum Egokituko Programek edo Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko bestelako programa batzuek,

aniztasunari erantzuteko modu gisa sortu diren arren eta ikasleen hezkuntza-inklusiorako ordutegi komuna izanagatik ere, oso abiapuntu desberdinetako ikasleak biltzen dituzte azken batean.

Nafarroan egiazko hezkuntza inklusiboa eman dadin eta bigarren hezkuntzako ikasleak programa eta atal bereiztuetan banatu ez daitezten, Hezkuntzan inbertitzen diren baliabideak BPGren % 6ra arte ailegatu beharko lirateke. Horrela, ikasle guztiei merezi duten arreta eman ahalko litzaieke ikasgelan, irakaskuntza-programa partekatuen bidez eta ratio txikiagoekin, programa bereziak sortzeko estrategiara jo gabe, ezinezkoa delako ikasle guztiei bidezko irakaskuntza eskaintzea.

Nafarroako zenbait eremutan A/G eta D ereduaren artean ematen den bertako eta atzerriko ikasleen banaketa erabat desorekatua ulertezina da, baldin eta alde zuzenetik ez badira aztertzen euskarak jasandako bazterketa historikoa eta egun diskriminazio hori mantentzen duten elementuak.

Ustezko poliziaren txostenetan oinarrituriko intoxikazio mediatikoa, zeinak D ereduko irakasleak ETArekin lotzen zituen, 2013 urtean batez ere. Euskara terrorismoarekin eta doktrinamenduarekin lotzea, irakaskuntzaren irudi gatazkatsua eta arriskutsua sortuz, hedabideek ere ezinikusia adierazten zieten testuinguru batean, eskuineko hedabideek zein iturri ofizialek, gehiengoa direnak. Ezin dira albo batera laga ere euskarazko testuliburuaren aurkako kanpainak, Euskal Herriko mapak zeuzkatelako.

Gizartearen gehiengoari ez zaio ailegatzeko instituzio publikoen aldetikako euskarerikoa sentsibilizazio kanpaina positiborik. Euskarabidea, Nafarroako Euskararen Institutua, lan horri ekiteko zeharo ezgauza den organismo publiko bat da.

Sarritan, oztopoz beteriko bidea aurkitze du A ereduaren segi nahi duenak: eredu horretan bere eskolaratzeari ekin dioten ikasleen kopuru handi batek utzi egiten du, gomendio "pedagogikoak" direla medio edota propio diseinaturiko ordutegiaren bateraezintasunagatik, ez dezaten euskararekin segi.

Hezkuntza Itunean agertu arren, Foru Lege batean xedatu bezala, ez dago irakaskuntza artistiko, kiroltako zein helduen irakaskuntzen euskarazko garapenik. Atzerritar helduentzat gaztelania ikastea doakoa eta publikoa da; Nafarroan, berriz, euskara ikastea oso garestia da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Magisteritza baino ezin da ikasi euskaraz; gainontzeko karreretan ikasgaiaren bat edo beste baino ez. Horrela egituratzen da euskarak ezertarako balio ez duenaren ideia, eragozpen bat baino ez dela, eta hobe dela ingelesezko ikasgaiaren alde egitea, gainera, ustez, lana aurkitzeko onuragarriak direlako (nahiz eta horrek maila akademikoa apaltzea suposa dezakeen, PAIrekin gertatzen den moduan).

Diskriminazio-politika orokortua administrazio guztian. 2019an, auzitegiek 2017ko gutxienekoen dekretua atzera bota zuten, eta egungo gobernuak ez zuen errekurtsorik ere jarri. Euskararen desnormalizazioa ia erabatekoa da Nafarroako Gobernuaren Departamentuetan. Edozein kudeaketa euskaraz egiten saiatzeak nahiko gaizki buka dezake eta hizkuntza-militantzia maila handia eskatzen du. Alemana meritu gisa baloratzen duten oposaketek, eta euskara ez, diskriminatzeaz gain, Nafarroako jatorrizko hizkuntzak lanerako balio ez duenaren ideia zabaldu nahi dute.

Horrek guztiak eragin duena eta eragiten segitzen duena da bertako biztanleriaren parte handi batek zein Euskal Herritik kanporako Estatuko beste leku batzuetatik etorri direnek, euskarazko hezkuntza buruhauste iturri moduan hautematea.

D ereduko ikastetxe publikoa baino ez dagoen herrietan edo eskualdeetan, ez dago inolako segregaziorik, ikasle guztiak eredu horretara joaten baitira, izan bat edo izan beste haien jatorria.

D eredu berriak: eredu horretan izena eman duten hainbat magrebiar jatorriko familiari mehatxu egin diete, esanez udal enplegu-plan sozialetatik at utziko dituztela. Haur hezkuntzan D ereduari ekin dioten irakasleek ere jazarpenak jasan dituzte, “eremu ez-euskalduna” deitzen duten horretan.

Atzerritar jatorria duten familiek euskararen inguruko informazio gutxi izan ohi dute, batere ez ez denean. Pertsona hauei arreta ematen jarduten duten erakunde askok G eredua gomendatzen diete (ez dirudi eragozpenik dutenik PAIrekiko). Euskara zama astuna balitz moduan erakusten zaie, nahiz eta sarritan beraien jatorrizko hizkuntzak antzekotasun morfoestrutural handiagoa izan dezakeen euskararekin gaztelarekin baino; esate baterako, euskara gaztelera baino askoz ere hizkuntza erregularragoa da, bigarrenak 1800 adizki iirregular baititu, eta euskarak bi baino ez. Bestalde, segregazio-maila handia duten hiriko ikastetxe asko atzerriko ikasleen kopurua handitu baino lehenago ere antzeko egoeran zeuden; izan ere, horietan biltzen ziren ikasle ijito pobreak eta ekonomikoki baztertuak.

D eta A ereduak aukeratzen duten familiek erresilienteagoak dira euskararekiko eta euskal kulturarekiko, informazio gehiago baitute, hizkuntzarekiko atxikimendu emozional eta bizipen gehiago eta hizkuntzaren ondare izaeraren kontzientzia handiagoa ere bai. Hori askoz ere proportzio handiagan ematen da diskurtso euskarafobiko nagusiek hainbeste baldintzatzen ez dituzten bertakoen artean. Iruñerrian, Lizarraldean edo Tafallan, esaterako, hezkuntza publikoan D eredua aukeratzen duten familiek beren seme-alabek euskaraz ikas dezaten eta hizkuntza ikas dezaten egiten dute. Atzerriko ikasleengandik alendu edo autosegregatu nahiko balira, gehienek gaztelaniazko itunpeko ikastetxe pribatuetera jo ahal izango lukete.

D ereduak segregatzen duela esatea euskara desagerrarazteko estrategia kolonialista espainolaren alde jardutea da, nahita alderantzikatuz nor den segregatzailea eta zein den egitura segregazionista.

1.3.4. Sexu/generoaren arabera segregazioa

Opus Deiren itunpeko ikastetxe pribatuek, orain arte azaldutako irizpideen arabera ikasleak segregatzeaz gain, ikasleak sexuaren edo generoaren arabera ere bereizten dituzte.

Hainbat epaik argudiatu dute “ikastetxe pribatuen segregazio sexual binarioak urratu egiten duela sexuagatik eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioaren debeku konstituzionala”, eta ez duela justifikaziorik, “sexuen arteko talentu eta gaitasun ezberdintasunaren topikoan oinarritzen delako”. Ildo horretan, Maria Luisa Balaguer Callejon epaileak esan du hezkuntza bereizia ez dela kabitzen “1978ko Konstituzioaren markoan”, eta eredu horrek “errendimendu akademikoa hobetzen” duela frogatzen duen azterketarik ez dagoela gaineratu du.

Gainera, ikasleen bereizketa modu honek ez du betetzen Nafarroako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legean eta LGTBI+ Gizarte Berdintasunari buruzko Legean ezarritakoa, eta, beraz, legegintzaldi honetarako akordio programatikoaren Hezkuntzaren 8. puntuan jasota zegoena: “Ikasleak sexuaren arabera segregatzen dituzten ikastetxeekin itunak saihesteko neurriak sustatzea (...)”. Gai horren berri eman behar zaie herritarrei hurrengo matrikulazio aldia baino lehen. Berdintasun politikak erabat bateraezinak dira sexua-generoaren arabera segregazioarekin.

Espero dugu Nafarroak LOMLOEn ezarritakoa betetzea, nahiz eta oraingoz ez den hala egiten, eta horrelako ikastetxeak finantzatzeari uztea; izan ere, orain arte azaldu ditugun bereizketa guztiak egiteaz gain, ikasleak aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-aniztasunaren arabera ere segregatzen baitituzte.

1.3.5. Ingurune behartsuenetako biztanleriaren banaketa irregularra Nafarroan

Nafarroan, inguru behartsuetako 6.403 adingabe daude eskolatuta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. Hala ere, adingabe horien presentzia ez da modu orekatuan banatzen lurralde osoan; izan ere, adingabe horien % 50 baino gehiago Iruñean (% 28,9) eta Tuteran (% 25) daude, Iruñerriko herrietan adingabe horietako % 18,5 daude eskolatuta, eta laugarren lekuan Lizarra dago (% 12,40), eta ostean Tafalla (% 9). Mailarik baxuena Nafarroako iparraldeak dauka; ipar-mendebaldeko tasa % 4,5ekoa da eta ipar-ekialdekoa % 1,6koa.

Kontuan hartu behar da, halaber, eremu horietako bakoitzaren errealitate demografikoa: ipar-mendebaldean eta Sakanan (% 33,3), Tuteran (% 31,9) eta Iruñean (% 31), 10etik 3 baino gehiago egoera kaxkarrean daude. Lizarra eta Tafalla inguruak ere batezbestekotik gora daude: % 28,8 eta % 26,2, hurrenez hurren. Batez bestekoaren azpitik Iruñerria (% 18,8) eta ipar-ekialdeko eskualdea (% 3,8).

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasle behartsuen banaketan Nafarroan, eskualdearen arabera, guztira matrikulatutako ikasleen ehunekoarekiko			
Eskualdea	Ikasle behartsuak	Matrikulatuak guztira	Ehunekoak guztira
Ipar-mendebaldea Sakana	287	862	33,3
Tutera	1597	5014	31,9
Iruñea	1858	5989	31
Lizarra eta ingurua	794	2758	28,8
Tafalla eta ingurua	580	2210	26,2
Iruñerria	1183	6278	18,8
Ipar-ekialdea	104	2750	3,8
Guztira	6403	25861	24,8

Iturria: [Nafarroako inklusio sozialerako plana, 2018-2021 ikasturtea. 156 or.](#)

1. Ikastetxeetako segregazioaren lehendabiziko zergatia: diru publikoz ordainduriko bi hezkuntza sare izatea

Datu horiekin ikus dezakegu nola, termino absolutuetan, Tuteran, Iruñean eta inguruko herrietan ikasle behartsuen kopurua handiagoa den. Hala ere, ikasle horiek matrikulatutako adingabe guztiekiko duten proportzioa kontuan hartuta, ipar-mendebaldea eta Sakana dira tasarik altuenak dituzten eskualdeak.

Datu horiek urteetako lurralde eta ekonomia politiken emaitza dira, zeinak hiri-eremuetako biztanleriaren kontzentrazioa erraztu duten; gainera, hiri-eremu horietan biltzen dira ikastetxe pribatu-itundu gehienak. Bi faktore horiek eremu horietan are eskola-segregazio handiagoa izatea eragiten dute.

2. Disfuntzio honen ondorioak ikasleentzat, ikastetxeentzat eta gizartearentzat bere osotasunean

2.1. Ratioen desoreka

Ikus daitekeenez, eta itunpeko ikastetxe pribatuen enpresa-izaera kontuan hartuta, bi sare izatearen ondorioetako bat da ikastetxe bakar batek eskainiko duela irakaskuntza, baldin eta Administrazioak itundu edo diruz laguntzen ez badu besterik. Horrez gain, itunpeko ikastetxe pribatuak 9.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan ezartzen dira, non bezeroak lortzeko aukera gehiago dituzten, eta, gainera, ratio handiagoak ezar ditzakete, batez ere biztanle gehien dauzkaten herrietan.

Beraz, Haur Hezkuntzan, batez beste, 25 haur daude, eta publikoan, berriz, 20. Azken sare horrek funtsezko zerbitzua eskaintzen die ikasleei, haien jaioterria edo gelaren kostua ratio txikiagoagatik handiagoa izango dela kontuan hartu gabe:

Ikasle/gela ratioa	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
9000 biztanle baino gutxiagoko herriak					
HH publikoak	21	21	21	21	20
HH itunduak	25	25	26	25	25
LH publikoak	21	21	21	21	20
LH itunduak	26	26	26	26	26
DBH publikoak	24	24	24	24	25
DBH itunduak	27	27	28	28	29
Batxilergoa publikoak	26	27	27	27	27
Batxilergoa itunduak	28	29	28	30	30

Ikasle/gela ratioa	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
9000 biztanletik gorako herriak					
HH publikoak	17	17	17	16	17
HH itunduak	19	20	20	20	21
LH publikoak	16	16	16	16	16
LH itunduak	17	17	17	18	17
DBH publikoak	20	20	20	20	21
DBH itunduak	21	23	21	21	20
Batxilergoa publikoak	25	25	24	23	23
Batxilergoa itunduak	17	16	21	22	20



Fuente: [Kontuen Ganbera. Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatueta irakaskuntza ez unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena \(2012-2016\), Kontuen Ganberak egina.](#)

2.2. Errendimendu-adierazle orokorren jaitsiera

Hain muturrekoak diren sareen arteko alde horiek ez diete mesede egiten ikasle batzuei eta kalte beste batzuei; aitzitik, egiaztatu dezakegu sistema segregatzaileek emaitza okerragoak lortzen dituztela inklusiboek baino. Suedian, non itunpekoak % 15 egin duen gora 10 urtean, batez bestekoaren gainetik egotetik, diziplina guztietan azpitik geratzera igaro dira. Beste muturrean Portugal dago, ia 30 puntu hobetu baititu barruti bakarra delakoa ezabatzeko politikak garatzen dituenetik. Horrela, familiek ikastetxea askatasunez aukera dezakete, eta ikastetxeen arteko lehiakortasuna proba estandarizatuen arabera rankingak argitaratuta egiten da.

Nafarroan, 2018ko PISA* txostenaren ([PISA 2018 txostena](#)) 21. eta 22. orrialdeetan ikus daitekeen moduan, 12 urtetan hezkuntza-sistemak 12 puntu galdu ditu, itunpeko sare pribatuak galdutako 11 puntuen eta sare publikoaren 12 puntuen ondorioz.

* Nazioarteko ebaluazio publikorik ez dagoenez, PISA datuak erabili beharrean aurkitzen gara. Argi utzi nahi dugu kapitalismo neoliberalak sustatzen duen ELGak egindako ebaluazioa dela PISA.



Iturria: PISA txostena 2018.

Beraz, ikasle kalteberen kontzentrazio handia duten ikastetxeen % 46,8ri (matrikulatuen % 26tik gorakoak) konplexutasun handia eragiten die ikasle horien presentziak, bai eta hezkuntza-premia bereziak dituztenen laguntza linguistiko premiengatik ere.

2.3. Gizarte desorekatuagoa eta kohesio gutxiagokoa (desberdintasun sozialak betikotzea)

Ikastetxeen arteko desberdintasunek eta itunpeko eskolek egiten duten ikasle hautaketak, maila akademikoan ez ezik, gizarte-desoreka iraurazten du, gizarte-kohesioa saihesten du, eskolagetoak sortzen ditu, non gabezia handienak dituzten ikasleak pilatzen diren eta non hezkuntza bera bereizketa saritzearen aldeko borroka bihurtzen duen.

Segregazioaren dimentsio subjektiboa marjinaltasun sentimenduetan eta “soberan egotean” datza. Horrelako sentimenduak funtsezko faktorea dira bereizketa “objektiboak” desintegrazio soziala eragin dezan. Etxeetan ikasten edo lanik egiten ez duten gazteak egotea, langabezia, eskola atzerapena, drogen kontsumoa, indarkeria, jokabide-nahasmenduen prebalentzia handiagoa, drogen kontsumoak eragindako nahasmenduak eta baztertutako zenbait talderen artean gauzatzen den delinkuentziarekiko atxikimendu geldo baina gero eta handiagoa, desintegrazio sozialaren fenomenoak dira, eta segregazioak sustatzen ditu, hainbat azterlanetan egiazta daitekeen bezala.

Beste aldean, badirudi segregazioa klase aberatsetan eta ertainetan berdintasunik ezarekiko tolerantzia edo axolagabekeria nabarmena bultzatzen duen giroa dela. Aukera-berdintasunaren arloko gutxieneko elkartasun-betebeharrak higitu egiten ditu segregazioak, espazio publikoak estratifikatu egiten dira, eta sektore pobreek heziketarako dituzten aukerak oso desberdinak eta eraginkortasunik gabeak dira gizarte-mugikortasuna eta diru-sarrerak bermatzeko bitarteko gisa.

3. Beharrezko neurriak

3.1. Gobernuarenak: beharrezko legeria eta berau betetzen dela zaintzeko betebeharra

Matrikulazio FD-an aplikaturiko neurriak edota beste araudi batzuegatikoak
1. Ikasle ohi edo guraso kooperatibista izategatik dauden eskolatzepuntuak edo ikastetxeek nahierara ezarritakoak kentzea.
2. Eskolatzepuntuak indartzea, tokiko koordinaziorako espazio izan daitezkeen, eskolatzepuntu inklusiboaren erantzunkidetasunerako.
3. Ikasle pilaketa handia duten zentroek matrikulazio arrunteko aldia itxi ondoren eskaintzen dituzten plaza kopurua murriztea, matrikula biziaren pilaketa sahiesteko.
4. Ratioen ohiz kanpoko handitzea soilik araudian aurreikusitako egoeretan (nahitaezko lekualdatzea, hezkuntza-premiak...) eskaria asetzeko erabiltzea.
5. Baldintza pertsonalengatik edo eskola-historiagatik berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak detektatzea, eta diagnostiko-protokoloak eta irizpen espezifikoak egitea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik edo Adingabeak Babesteko Agentzietatik.
6. Ikastetxearen eskolatzepuntu-indize bat sortzea, zeinak familien matrikulazio-maila sozioekonomikoari buruzko datuak bilduko dituen, adierazleak estandarizatuta eta aldizka ezarri, ikastetxeak, eremuak eta autonomia-erkidegoak konparatu ahal izateko.
7. Ikastetxeen baliabideak ematea konplexutasun-indizearen edo ikasle-profilen presentziaren arabera.
8. Kontzentrazio handidun ikastetxeetan berrikuntza-proiektu inklusiboak sustatzea, askotariko profila duten ikasleen eskaria erakartzeko.

Matrikulazio Foru dekretuan ez dauden neurriak eta hura garatuko duen Foru Aginduan ezarri beharko liratekeenak
1. Hezkuntza-plangintza: itunak deuseztatzea, hezkuntza-sistema publikoak eskaera guztia bere gain har dezan, LOMLOEren 109. artikulua ildotik; “Ikastetxe sarearen programazioa: hezkuntza-eskaintza programatzea, behar adina plaza publiko daudela bermatuz”. Hezkuntza administrazioek, titulartasun publikoko ikastetxeen sarean, ikaspostuen hazkunde jarraitua sustatuko dute “.

<p>2. Eskualde bateko esku-hartzeak sistemiko egitea: eskaintza akademikoa berdina izan dadila bertako ikastetxe guztietan, bai zerbitzu osagarrietan zein jantokian, goizeko gelan eta eskolaz kanpoko jardueretan, eta baita espezializazio akademikoan eta eskola-jardunaldian ere.</p>
<p>3. Aniztasuna helburu espezifiko modura derrigorrez eranstea ikastetxearen ideietan eta hezkuntza-proiektuan, hala nola ekitatea ere, diru publikoz sostengatutako ikastetxe guztietan.</p>
<p>4. Gizarte-osaera desberdineko lehen hezkuntzako ikastetxeen konbinazio bat atxikitzea bigarren hezkuntzako dagokion ikastetxean.</p>
<p>5. Ikastetxe bakoitzean plazak erreserbatzeko gutxieneko eta gehieneko kuotak ezartzea, herriko errolda eta bestelako iturriak erabiliz ikastetxearen heterogeneotasuna bermatzeko.</p>
<p>6. Premia berezidun ikasleen gehienezko ehuneko bat ezartzea ikasgelako, arrazoi sozioekonomiekoengatik premiak ere barne hartuz.</p>
<p>7. Ekimen informatzaile eskuragarriak garatzea, zaurgarritasun egoeran dauden familiak ahalduntzeko.</p>
<p>8. Kontzientziazio kanpainei ekitea.</p>
<p>9. Tamaina ertaineko eskolatzere-eremuak sortzea, gizarte-osaeran heterogeneoak diren populazioak barne hartuko dituztenak.</p>
<p>10. Matrikulazio-bulego zentralizatuak sortzea eskualdeka, hezkuntza-eskaintzari eta haien eskubideei buruzko informazio irisgarria eta laguntza emateaz arduratuko direnak, eta baita inskripzioak jasotzeaz eta kudeatzeaz ere.</p>
<p>11. Ikasle populazioaren ezaugarri sozioekonomikoak aztertzea eta horiek banatzeko neurriak ezartzea, aurrez ezarritako ekitate eta inklusio-irizpide zenbaiten arabera.</p>
<p>12. Itunpeko ikastetxe pribatuetan matrikulatutako ikasleen jarraipen proaktiboa egitea, bidegabeko kuotak kobratzeagatik ikastetxe publikoetara joan ez daitezen.</p>
<p>13. Plazak esleitzeko erabiltzen diren algoritmoak aldatzea, familia aberatsenek haien aukeraketa estrategian haien aldeketasunik izan ez dezaten.</p>
<p>14. Gutxieneko eta gehieneko inklusio-indizeak ezartzea, non ikastetxe guztiak barnean egon behar diren.</p>
<p>15. Ikastetxe publikoak birgaitzeko, handitzeko edota ekipamenduz hornitzeko plan estrategikoak abian jartzea.</p>
<p>16. Kontzentrazio handidun ikastetxeetan irakasleen egonkortasunerako sustapen-neurriak eskaintzea.</p>

<p>17. Sistema publikoak hezkuntza-eskaera osoa bere gain hartzen duen artean, itunak arautzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ekitate-irizpideak eta inklusiorakoak sartzea itunen baldintzetan.- Batez besteko horiek ez betetzeak dauzkan ondorioak gogortzea.- Hezkuntza Ikuskaritzatik arauak betetzen direla bermatzen dela gainbegiratzea, ekarpenei, fundazioei edo elkarteei ordainketak ezartzeari dagokionean, edota ikasleei ekarpen ekonomikoak egitea eskatzen dieten nahitaezko zerbitzuak ezartzeari dagokionean.
<p>18. Beharrian sozioekonomikoak dauzkatzen ikasleen detektatze goiztiarra hobetzea, zerbitzu sozialen eta tokiko erakundeen bidez.</p>
<p>19. Gaur egun SBG ikasleen indizea % 40tik gorakoa den ikasgeletan egoera zaurgarrian dauden ikasleen ehuneko murrizteko neurriak ezartzea.</p>
<p>20. Ikastetxearen eskolatz-indizea ezartzeko, BHLEI kopurua (tipologiagatik eta ezarritako hezkuntza neurriengatik) ez ezik, ikastetxearen ISEK indizea, aurreko ikasturteetan berandu sartu izana, egokitasun-tasa, errepikapen-tasa eta absentismo-tasa ere kontuan hartzea.</p>
<p>21. Autista espektroko nahasketak, egokitzapen unitateak, Berariazko Kurrikulum unitateak eta Lanbide Heziketa Berezian unitate espezifikoak deskontatzea, hala badagokio, ikastetxearen eskolatz-indizea ezartzeko, gela horiek beren baliabide espezifikoak baitaizkate.</p>
<p>22. Familia horien mugikortasun handia dela-eta, horietako ikasleei ikastetxe batean ohiz kanpoko aldi esleitu zaizkien plazak, hutsik geratu arren, 3 urtez beste inork ohiko aldi betetzeko ezintasuna ezartzea.</p>
<p>23. Gizarte Eskubideei Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan langile gehiago eskatzea, gizarte eta ekonomia aldetik egoera zaurgarrian dauden edo gizarte-laguntzen mende dauden familietako ikasleei errenta bermatua emango dieten txostenak arinago bete ditzaten.</p>
<p>24. Ikastetxeei hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen detekzioan, diagnostikoan eta tratamenduan espezializatutako Orientazioko langileak ematea, bai eta ikastetxeko planak eta programak ezartzeko lanez arduratzen diren Orientazioko langileak ere.</p>
<p>25. Plazak esleitzeko bestelako sisteman batzuek Nafarroako eskola-segregazioan izango lituzketen ondorioak aztertzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikastetxe hautaketa kontrolatua (Controlled choice) AEBetan.- Plazen atribuzio mekanismo britainiarra.- Ikasle profil bat definitzeko aniztasun indizea (Diversity Index Lottery), ikasturtez ikasturte ikasle ezberdinak izan daitezen haien artean.- Banding system eta ausazko prozedura informatizatua.

Eskola-segregazioa gizarteari, oro har, ondorioak ekarriko dizkion arazoa dela ohartzen ez garen bitartean, ez dugu ausardia nahikorik izango beste zerbitzu publiko batzuetan pentsaezinak diren gaiak mugatzeko, gizarte-eskubideak ez baitira gai partikularrak; aitzitik, hezkuntzarako eskubidea haurren eskubide kolektiboa da, eta ez gurasoen eskubide indibiduala.

3.2. Ikastetxeetan

- HEZIGARRI programa: irakasle-taldeak sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak, talde-lanaren bidez ikasle guztiekin esku hartu ahal izan dezaten, batez ere hezkuntza goiz uzteko arriskuan daudenekin

[HEZIGARRI Programaren Formakuntza - Nafarroa](#)

- NHBBZ: Ikasgelan hezkuntza-inklusioko sentsibilizazioa.

[Sentsibilizazio gida hezkuntza inklusiorako \(navarra.es\)](#)

- FRIDA proiektua: Arrazismoa, xenofobia eta elkarri lotutako intolerantziak ikasgela barruan detektatzeko eta aurreikusteko formakuntza proiektua (FRIDA).

[OBERAXE – Arrazismoaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia](#)

[FRIDA proiektua \(inclusion.gob.es\)](#)

- Metodologia inklusiboak: zenbait proposamen: inklusioa lantzea, harrera-programa, ikaskuntza kooperatiboa, berdinen arteko tutoretza, irakurketa binaka, irakaskuntza partekatua, talde interaktiboak, solasaldi dialogikoak, neurodidaktika:

[Metodologia inklusiboak \(navarra.es\)](#)

- Baliabideak: Aniztasunarekiko Arreta (Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren webgunea)

[Baliabideak - Hezkuntza Departamentua \(navarra.es\)](#)

- Araudia:

[Hezkuntza Departamentua - Araudia \(navarra.es\)](#)

- Nafarroako Aniztasunaren Arretarako Plan Estrategikoa

[Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa - Nafarroako Gobernua \(navarra.es\)](#)

3.3. Erantzunkidetasun soziala

Nafarroako Inklusio Plan Estrategikoan (2018-2021), gizarte mailan garatu beharreko zenbait jarraibide ezarri ziren, inklusioa erkidegoan egiazkoa bihur dadin:

1. Bazterketa sozialari eta inklusio politikei buruzko ezagutza hobetzea, komunikabideekin lan eginez, baztertutako herritarrei lotutako aurreiritzien aurkako borrokan eta aniztasunarekiko arretan aurrera egiteko.
2. Administrazioen arteko lankidetzaren bultzatzea baztertutako pertsonen parte-hartze soziala sustatzeko, ekimen publikoko eremu guztietan inklusioaren eta aniztasunaren ikuspegia sustatuz. Horrela, kontuan hartuko dira baztertutako pertsonen parte-hartze soziala zailtzen dieten oztupoak dauzkatala kirol, kultur, aisialdi edo parte-hartze politikoko jardueretan.

Horrez gain, lankidetzaren sustatu behar da gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeekin, baztertutako pertsonen parte-hartze soziala erraztuko duten programak eta ekintzak bilatzeko, eta administrazio publikoari eskatu behar zaio bazterketa-egoeran dauden pertsonen parte-hartze politikoa sustatzeko, haien eskubideak defendatzeko eta jasotako arretan eta prestazioen kalitatea bermatzaren eginkizuna betetzeko.

3. Eragile ekonomikoek gizarteratzean duten inplikazioa hobetzea, gizarteratzeko aukerak sortzeko formulak sustatuz, hainbat modutan: laguntza ekonomikoa, klausula sozialak, aintzatespen publikoa eta beste.
4. Inklusio-politiken ebaluazioan eta planifikazioan gizarte-ekintzarako erakundeak ere egotea.
5. Elkartasuna sustatzea gizartearen, informazioa zabalduz gizarte-politikek herritarren ongizatean daukaten eraginari buruz, oro har, eta baita baztertuta dauden pertsonen ongizatean daukatenari buruz ere. Horrekin batera, baztertutako biztanleriari eta talde gutxituei buruzko aurreiritziak gainditzen laguntzea, ekitate, bizikidetzaren eta gizarte-konpromisoko balioak sortuz.

Erabilitako bibliografia eta materialei estekak

Liburuak, dokumentuak eta txostenak

Kontuen Ganbera (2018). *Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ezunibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016)*.

50/2019 Foru Agindua, “Bestelako gastuak” eta “Langile osagarriak” moduluen justifikazioaz ikastetxe itunduetan.

M. Berengueras Pont y J. M. Vera Mur (2015). *Las leyes de educación en España en los últimos doscientos años*. Supervisión 21, revista de inspección y educación.

J. Murillo y C. Martínez-Garrido. *Magnitud de la segregación escolar por nivel socioeconómico en España y sus Comunidades Autónomas y comparación con los países de la Unión Europea* (Universidad Autónoma de Madrid).

M. Andrada. (2007). Libertad de elección escolar, mecanismos de atribución de plazas y preferencias familiares: una evaluación a partir de criterios de equidad. Universidad de Sevilla.

Aniztasunari Erantzuteko Nafarroako Plan Estrategikoa.

Nafarroako Eskola Kontseilua. 2019-2020 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko txostena.

A. Sastre. 2018. Mézclate conmigo: de la segregación socioeconómica a la educación inclusiva Save the Children.

Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa 2018-2021.

Web-orriak eta aldizkari eta egunkarietako artikulak

La segregación por sexos se oferta en 87 centros concertados. Noticias de Navarra.

Hezkuntza nahieran eta segregatzailea Nafarroan; diru publikoarekin. ELA sindikatua.

¿Escuela de ricos, escuela de pobres? Cómo la concertada y la pública segregan por clase social. El País.

Ley de Educación a examen. Carne Cruda.

“España necesita bueyes que trabajen” o por qué tengo 31 estudiantes en una clase. El Salto.

La mercantilización de la educación pública en España tras la COVID-19. La Marea.

Las zonas de Navarra con alta tasa de pobreza y hacinamiento presentan mayor incidencia de covid. Noticias de Navarra.

Lomloe: la alternativa a lo peor sigue siendo mala. Naiz.

Las 25 claves para entender la LOMLOE, la nueva ley educativa. Diario de Navarra.

Eskola segregazioa itundua dago. Nafarroako hezkuntza sistemaren lotsa

La educación en libertad y como derecho social. Las Provincias.

La LOMLOE y las mentiras de la derecha. Cuarto Poder.

La trampa de la libre elección educativa neoliberal. El País.

Informe PISA: España obtiene sus peores resultados en ciencias y se estanca en matemáticas. El País.

Los niños no se han vuelto más tontos. Faltan sistemas educativos más inteligentes. Xataka.

La segregación escolar, un mal evitable. El Diario de la Educación.

Asociación Sei.

Save the Children: El 90 % de los colegios que concentran a los alumnos de nivel socioeconómico bajo son públicos (rtve.es).

PISA 2018 TXOSTENA (gaztelaniaz soilik) NAFARROAKO EMAITZAK. Ebaluazio Atala, Hezkuntza Departamentua.

SOS Racismo Nafarroa.



Hezkuntza Publikoari BPGaren % 6.

Auzo eta herrietako eskolak ardatz.

Erljioa eskolatik at.

**Diruz lagundutako ikastetxe
pribatuen publikakazio plana
lehenbailehen!**

Eskola segregazioari STOP!

